

IKASKUNTZA ZERBITZUA ETA GORPUTZ ADIERAZPENA

GRADU AMAIERAKO LANA



EGILEA: Santarén Barrios, Elena

ZUZENDARIA: López Vélez, Ana Luisa

2021 - 2022

LABURPENA

Gratu Amaierako Lan honetan herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza eskasa kontuan hartuta, Ikaskuntza Zerbitzuaren bitartez, Gorputz Adierazpeneko esku- hartze bat aurrera eraman da. Garatutako sekuentzia didaktikoa Kanpezuko herrian burutu da eta 6- 12 urte bitarteko umeei zuzendu da. Lan honen xede nagusia, eskaintako zerbitzuak eskolaz kanpoko gorputz- adierazpeneko programazio bat garatzea da, herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko zailtasunak dituzten umeei zuzendua. Bigarren helburuari dagokionez, gorputz- adierazpenak haurren inklusio bermatzeko eskaintzen dituen aukerak aztertzea da, haurrak jolasen bitartez gorputzaren eta hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko beharrezkoak diren jarrerak garatuz. Bestalde, aurrera eramandako lau saioeten egunerokoan jasotakoa analizatzeko, kategorizazio sistema erabili da. Ondorioei dagokionez, Ikaskuntza Zerbitzuak eta Gorputz Adierazpenak dituen onurak aztertu da eta azkenik, lan honek izan dituen mugak eta hobekuntza proposamenak azaltzen dira.

Gako hitzak: Ikaskuntza- zerbitzua, gorputz- adierazpena, inklusioa, Lehen Hezkuntza eta esku- hartzea.

RESÚMEN

En este Trabajo de Fin de Grado se ha llevado a cabo una intervención de Expresión Corporal a través del Aprendizaje-Servicio, para niños y niñas que tienen dificultades para realizar actividades extraescolares en pueblos pequeños. La secuencia didáctica desarrollada se ha realizado en la localidad de Campezo y se ha dirigido a niños de entre 6 y 12 años. El objetivo principal de este trabajo es desarrollar una programación de expresión corporal, dirigida a niños y niñas que viven en pueblos pequeños y tienen menos oportunidades de realizar actividades extraescolares. En cuanto al segundo objetivo, se trata de analizar las posibilidades que ofrece la expresión corporal para garantizar la inclusión de los niños y niñas, desarrollando las actitudes necesarias para comunicarse y expresarse a través de los juegos, del cuerpo y del lenguaje verbal y no verbal. Por otro lado, para analizar lo recogido en el día a día de las cuatro sesiones llevadas a cabo, se ha utilizado un sistema de categorización. En cuanto a las conclusiones, se han analizado los beneficios del Aprendizaje-Servicio y de la Expresión Física y, por último, se explican las limitaciones y las propuestas de mejora que ha tenido este trabajo.

Palabras clave: Aprendizaje-Servicio, expresión corporal, inclusión, Educación Primaria y intervención.

ABSTRACT

In this Final Degree Project, a Corporal Expression intervention has been carried out through Learning Service for children who have difficulties to carry out extracurricular activities in small towns. The didactic sequence developed has been developed in the town of Campezo and has been addressed to children who are between 6 and 12 years old. The main objective of this work is to develop a program of corporal expression, aimed at children who live in small towns and have little opportunities to take part in extracurricular activities. As for the second objective, it is to analyze the possibilities offered by corporal expression to guarantee the inclusion of children, developing the necessary attitudes to communicate and express themselves through games, the body and verbal and non-verbal language. On the other hand, a categorization system was used to analyze what was collected in the research diary about the four sessions carried out. As for the conclusions, the benefits of the Service-Learning and Physical Expression have been analyzed and, finally, the limitations and proposals for improvement of this work are explained.

Key words: Service-Learning, corporal expression, inclusion, Primary Education and intervention.

AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. MARKO TEORIKOA	6
1.1 Ikaskuntza- zerbitzua	6
1.1.1. Ikaskuntza- zerbitzuaren definizioa	6
1.1.2. Zer ez da ikaskuntza- zerbitzua?	7
1.1.3. Ikaskuntza- zerbitzuaren oinarrizko baldintzak	9
1.1.4. Ikaskuntza- zerbitzuaren egitura	10
1.1.5. Ikaskuntza- zerbitzuaren onurak	11
1.2 Gorputz- adierazpena	12
1.2.1 Gorputz- adierazpenaren kokapen historikoa	12
1.2.2 Gorputz- adierazpenaren definizioa	13
1.2.3 Gorputz- adierazpenaren onurak	14
1.2.4 Gorputz- hezkuntzaren garrantzia inklusioa bermatzeko	14
2. HELBURUAK	15
3. METODOA	16
3.1 Testuingurua	16
3.2 Programazioa	17
3.3 Prozedura	23
3.4 Erabilitako tresnak informazioa biltzeko	24
3.5 Informazioaren analisia	26
4. EMAITZAK	28
4.1 Esperientzia eta anekdotak	28
4.2 Planifikazioa	29
4.2.1 Aspektu metodologikoak	29
4.2.2 Faktore erraztatzaileak	32
4.2.3 Faktore oztopatzaileak	34
4.2.4 Proposamen didaktikoaren ebaluazio eta balorazioak	36
4.3 Harremanak	38
4.3.2 Umeen arteko harremanak	38
4.3.3 Hezitzaile- ume harremanak	39
4.4 Sentipenak, kezkak eta zalantzak	39
5. ONDORIOAK	40

6. ERREFERENTZIAK

43

7. ERANSKINAK

48

SARRERA

Gratu Amaierako Lan honetan (GrAL) Ikaskuntza Zerbitzuaren (I+Z) bidez planifikatutako zerbitzu bat aurkezten da. Lan honen xede nagusia, bolondres moduan eskainitako zerbitzuak eskolaz kanpoko gorputz- adierazpeneko programazio bat garatzea da, herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko zailtasunak dituzten umeei zuzendua. Lan honetan, prozesuan zehar bizitakoaren esperientzia pertsonala azaltzen da.

Zerbitzua Kanpezuko herrian burutu da, izan ere, garrantzitsua eta aberasgarriagoa iruditu zitzaidan nire testuinguru hurbilean aurrera eramatea. Zerbitzua lau larunbatetan aurrera eraman da, herriko frontoian eta parkean. Zerbitzua Kanpezu inguruko herrien 6- 12 bitarteko umeei zuzendu da, dohainik eta euskaraz. Aipatzekoa da, diseinatutako zerbitzua herri txikietan eskolaz kanpoko ekintza ohiaren hutsunetik abiatu dela.

Zerbitzua gorputz- adierazpenean oinarritu da, izan ere, gorputz- adierazpenak hezkuntza arloan presentzia handia ez duen esparrua da eta eskaintzen dituen onurak aztertu ondoren, aukera ezin hobea iruditu zitzaidan. Gainera, aurrera eraman nahi nuen Ikaskuntza Zerbitzua Gorputz Hezkuntzarekin erlazionatuta egotea nahi nuen, izan ere, Lehen Hezkuntza Graduaren azken kurtso honetan Gorputz Hezkuntzako minorrean aritu naiz. Hala ere, lanaren zehar eskuratutako formazioa eta gaitasunak nire etorkizunerako oso baliagarriak izango delakoan nago.

Bestalde, aipatzeko da, esperientzia honen bidez gizarte hobeagoa eraikitzea du helburu eta horretarako, Campus Bizia Lab (CBL) proiektuan parte hartu dugu. Hau da, Nazio Batuek mundu jasangarriago baten beharra aldarrikatzen dute, desberdintasunak ezabatzeko eta gizarte bidezkoagoak zein inklusiboagoak eraikitzeko. Horretarako, UNESCOk (2015) Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda argitaratu zuen eta bertan jasotzen diren 17 helburuetan lan egitea proposatzen digu. Helburu horien artean, gure helburua kalitatezko hezkuntza eskaintzea, genero berdintasuna bultzatzea eta desberdintasunak murriztea da. Eta GrAL honen bidez nire ekarpen txoa egiteko aukera izan dut.

Hurrengo lerroetan Ikaskuntza Zerbitzuaren eta Gorputz Adierazpenaren inguruko bilaketa bibliografikoa azaltzen da. Era berean, Ikaskuntza Zerbitzua aurrera eraman den Kanpezu herriaren esku-hartzearen inguruko informazioa aztertzen da. Bestalde, erabilitako metodologia zerbitzuaren analisisia aurrera eramateko, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak agertzen dira. Eta lanari bukaera emateko, ateratako ondorioekin azken hausnarketa azaltzen da .

1. MARKO TEORIKOA

Hurrengo lerroetan hainbat autoretan oinarrituta ikaskuntza- zerbitzuaren inguruan hitz egingo dut; ikaskuntza- zerbitzua zer den eta zer ez den, oinarrizko baldintzak, egitura eta onurak azalduz. Ondoren, gorputz- adierazpenaren kokapen historikoa, definizioa, onurak eta gorputz- hezkuntzak praktika inklusiboan duen garrantzia azalduko dut. Izan ere, bolondres moduan eskainitako zerbitzuak eskolaz kanpoko gorputz- adierazpeneko programazio bat garatzea da, herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko zailtasunak dituzten umeei zuzendua

1.1 Ikaskuntza- zerbitzua

1.1.1. Ikaskuntza- zerbitzuaren definizioa

Ikaskuntza- zerbitzuak definizio ugari jaso izan ditu azken urteetan. Ikaskuntza- zerbitzua irakaskuntza- ikaskuntza metodo berritzaile bat bezala definitu daiteke. Metodo honek gizartearentzako zerbitzua eta ikaskuntza akademikoarekiko, hazkunde pertsonalarekiko eta erantzukizun zibikoarekiko hausnarketa kritikoa integratzen ditu. Ikaskuntza- zerbitzua gizartea eta ikaskuntza eraldatzeko tresna bezala definitu daiteke, gizartea eraldatzeko gai diren hiritar adituak prestatzea helburu duena. Izan ere, gizarte-premietatik kanpo geratzen den hezkuntza-sistema bati eman beharreko erantzuna da (Aramburuzabala et al.,2015).

Beste autore batzuen arabera, zerbitzua esperientzian oinarritutako metodo pedagogiko gisa ulertzen da, eta irakaskuntza- ikaskuntza prozesua gizarte premien aurrean ikasten dena aplikatzean datza. Zehazki, ikaskuntza zerbitzua esperientzian oinarritutako metodo pedagogikoa da, eta ikasleek edukiak eta curriculumeko helburuak lantzen dituzte komunitateari zerbitzu esanguratsua ematen dioten bitartean. Prozesu osoan zehar zerbitzurako ikaskuntzak ikasleen parte-hartze aktiboa eskatzen du, eta ikasleek prestakuntza-prozesuan eskuratutako gaitasunak testuinguru errealean aplikatzeko eta finkatzeko aukera eskaintzen da (Chiva et al., 2018).

Mendía eta Morenok (2010) bide beretik ikaskuntza- zerbitzua eredu pedagogiko bezala definitzen dute, edukiak, trebetasunak eta balioak modu praktikoa garatzea errazten duena, gizartea eraldatzeko ekimenekiko konpromisoaren bitartez.

Ikaskuntza- zerbitzua edukien, trebetasunen eta balioen ikaskuntza eta komunitatearentzako zerbitzua integratzen dituen metodologia da. Hau da, ikaskuntza eta komunitatearentzako zerbitzua uztartzen dituen metodologia. Proiektu horretan, parte-hartzaileak ingurunearen benetako premien gainean lan egitean trebatzen dira (Programa Arce, 2014).

Bestalde, Rubio-k (2008) ikasketa eta zerbitzu solidarioa uztartzean sortutako metodologia bezala definitzen du. Izan ere, ikasketak zerbitzua hobetzen du, ikasitakoa ekintza moduan errealitatera transferitu daiteke eta kalitatezko zerbitzua eskaintzea ahalbidetzen du. Berriz, zerbitzuak ikaskuntza hobetzen du, motibatu egiten du, zentzua ematen dio eta ikasketa berriak lortzeko aukera ematen du.


Beste autore batzuen arabera, metodo pedagogiko aktibo, parte-hartzaile eta globalizatzailerik da, solidaritatea eta lankidetzaren bezalako terminoetatik abiatuta definitzen dena. Gainera, ikaskuntza zerbitzuak premia duten edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboek gizarte-zerbitzu bat ematen zaien aldi berean ikastea eskatzen duen metodoa da (Ruiz et al., 2016).

Ikaskuntza Zerbitzuaz hitz egiten da, proiektu baten garapenean aldi berean asmo pedagogikoa eta asmo solidarioa agertzen direnean (Leiss et al., 2015). Beste hainbat autore eta erakundeek kontzeptu honen definizioak ere eman dituzte. Haien artean Tapiak (2016) ikaskuntza zerbitzua hezkuntza proiektu bat bezala definitzen du, ikasleen protagonismoa eta esku hartzea nagusitzen duena, hartzaile diren biztanleekin eraginkortasunez lankidetzan aritzera bideratuta dagoena.

1.1.2. Zer ez da ikaskuntza-zerbitzua?

Behin, ikaskuntza-zerbitzuak dituen ezaugarriak aipatuta, komenigarria izango litzateke argitzea ikaskuntza-zerbitzua zer ez den. Izan ere, askotan, ikaskuntza-zerbitzu praktikak hezkuntza esparruetan garatutako esku-hartze komunitarioko beste praktika batzuekin nahastu egiten da. Haien artean borondatezko lana, noizbehinkako jardura boluntarioak eta landa lanak nabarmentzen dira, besteak beste. Rubio-k (2008) komunitateko jardueren honako sailkapena planteatzen du:

1. Irudia: Ikaskuntza-zerbitzu eta beste pedagogien ekarpenak ikaskuntza eta zerbitzu alderdietan



Oharra: Rubio, 2008, 6. orrialdea

Ardatz bertikalak proposatutako ekintzak zerbitzuan zein mailatan zentratzen diren adierazten du, eta ardatz horizontalak, berriz, garatzen den zerbitzuan ikaskuntza sistematikoa edo diziplinarra gutxiago edo gehiago integratzea adierazten du.

Alde batetik, borondatezko lanari dagokionez, komunitateari eskainitako eduki handiko zerbitzua da baina, ez du zertan ikaskuntza bat suposatu behar. Honek ez du esan nahi, lan hau ikaskuntza zerbitzura ailegatzeko abiapuntu desegokia denik (Rubio, 2008).

Bestetik, landa lanak ikasleak komunitatearen errealitatearekin erlazionatzen dituzten jarduerak dira, gizarte edo ingurumen arazoekin. Mota honetako jarduerak ingurunearen ezagutza inplikatzeko dute, baina ez dute aztertzen den komunitateari zerbitzu bat ematea proposatzen; hau da, ikaskuntza dago, baina ez zerbitzurik (Tapia, 2006). Rubio-k (2008) bide beretik, azaltzen du landa lanak curriculum bateko eduki espezifikoei izango dutela ardatza eta komunitate bati eskainiko dion zerbitzua oso baxua izango dela.

Azkenik, noizbehinkako ekintza boluntarioak dauzkagu. Ekintza hauek ikaskuntza-zerbitzuaren kontrako eremuan aurkitzen dira. Izan ere, eskaintzen den zerbitzua momentu konkretu batera mugatu egiten da eta ikaskuntzak ez dira oso sistematizatuak egoten (Tapia, 2006).

1.1.3. Ikaskuntza- zerbitzuaren oinarrizko baldintzak

Ikaskuntza- zerbitzuan oinarritutako proiektuek bost alderdi bateratzen dituzte haien helburuak bete ahal izateko. Proiektuak abian jartzeko eduki beharreko oinarrizko baldintzak honako hauek dira: ikasketa, zerbitzua, proiektua, partaidetza eta hausnarketa (Rubio, 2008).

Ikaskuntzak sistematizatuta egon behar du, eta eman beharreko zerbitzuarekin lotuta egon behar du. Gainera, protagonistei prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren zer ikasiko duten argi utzi behar zaie. Era berean, ikaskuntzek errealitatea ulertzen, beharrak diagnostikatzen, kalitatezko zerbitzua eskaintzen, norberaren ekintza berrikusten eta etorkizunean hobetzen laguntzen dute. Honetaz gain, ikaskuntza zerbitzuak diziplinarteko edukiak lantzeko eta zeharkako trebetasunak sustatzeko aukera ematen du (Rubio, 2008).

Zerbitzuaren atala aztertzean kontuan hartu behar da zerbitzuaren helburua inguruneko benetako beharrak hobetzeko erantzuna ematen duela. Ikaskuntza- zerbitzu metodoan zerbitzuak izaera asistenzialista duten ekintzez alde egiten saiatzen da eta eragin hezitzailea eta eraldatzailea du protagonistengan, zentroko giroan eta jarduten den ingurunean. Horregatik, hezkuntza erakundeen eta gizarte erakundeen arteko elkarlana sendoa izatea ezinbestekoa da (Rubio, 2008).

Proiektua puntuari dagokionez, irakasleak modu egokian antolatutako eta ebaluatutako proiektu bat da; hau da, ez da berezko ikasketa egoerekin nahasi behar. Hau horrela izanda, kalitatezko zerbitzu bat lortzeko landu behar diren gaitasunak, helburuak eta edukiak ondo finkatuak egon beharko dira (Rubio, 2008).

Ikaskuntza- zerbitzuen esperientziak ikasleen partaidetza aktiboan eta protagonismoan oinarritu behar dira, bai beharrak identifikatzen lagunduz zein hobekuntza proposamenak eginez (Rubio, 2008).

Azkenik hausnarketa daukagu eta ikaskuntza- zerbitzuetan ezinbestekoa da prozesuaren, egindako ikaskuntzaren eta zerbitzuaren eraginaren inguruan hausnartzea. Izan ere, hausnarketari esker, hobetzeko alderdiak identifikatzeko aukera dago jarrera paternalistak gaindituz (Rubio, 2008).

1.1.4. Ikaskuntza- zerbitzuaren egitura

Ikaskuntza- zerbitzu bat prestatzeko, beharrezkoa da sortzen den momentutik eta azken ebaluazioa egiten den arte prozesua barne hartzen dituen pausu batzuk kontuan hartzea. Urrats horiek gogoan izatea oso lagungarria da lanak modu egokian ordenatu eta bideratzeko (Puig et al., 2008).

Prestakuntza, betearazpena eta ebaluazioa dira prozesuaren hiru urrats bereizgarrienak; hala ere, hiru une horiek zazpi etapatan bana daitezke. Izan ere, fase bakoitzak duen intentsitatea desberdina izango da.

Aipatutako zazpi faseak honako hauek dira (Puig et al, 2008):

1. Zirriborroaren garapena: Ikaskuntza- zerbitzuen abiapuntua irakaskuntzako proposamen gisa garatzeko bideragarria den ideia bat da. Behin ideia zehaztuta dagoela beharrezkoa da guztion arteko lankidetzaren proiektua martxan jartzeko lekurik eta unerik egokiena bilatzeko. Lehen fase honen amaieran beharra identifikatuta, zerbitzua zehaztuta eta ikasleek zein ikaskuntza bereganatuko dituzten zehaztuta egon behar da.
2. Gizarte- erakundeekin harremanak ezartzea: Ikaskuntza- zerbitzu bat martxan jartzeko beharrezkoa da erakunde, hartzailerik eta abarren arteko harremanak eraikitzea. Izan ere, zerbitzuak gizartearen beharrei erantzuten die, eta erakundearen bidez zerbitzuak bideratzeko aukera dago. Etapa honen bukaeran, proiektuaren parte- hartzailerik, hau da unibertsitateak eta erakundeak, haien konpromisoak baieztatzen dituen agiri bat sinatu beharko dute.
3. Plangintza: Proiektuaren zirriborroa prestatu eta proiektuari itxura eman ondoren, zein neurri hartuko diren planifikatzen hasteko garaia da. Hirugarren fase honen bukaeran, proiektuaren izena zehaztuta egon behar da.
4. Prestaketa: Proiektuaren ezaugarriak argi daudenean eta taldea nola inplikatu den zehaztuta dagoenean, prestaketa egiteko momentua heldu da pertsona guztien inplikazioa ahalbidetuz.
5. Betearazpena: Proiektuaren prozesuan ustekaberen bat suerta daiteke, beraz atal honetan plangintzan ezarritako alderdiak eraldatu eta hobetu beharko dira. Aldi honen bukaeran, egindako guztia erregistroa jasota utzi beharko da.
6. Amaiera: Zerbitzua jaso dutenek balorazio bat egingo dute, bi ardatz nagusi kontuan hartuta: ikaskuntza eta zerbitzua. Seigarren etapa honen amaieran, parte- hartzailerik

prestatutako balorazioko osagaien bat eskura izatea komenigarria izango litzateke, hala nola, horma-irudi, txosten edo elkarrizketen bilduma bat.

7. Ebaluazioa: Proiektua bukatu eta ebaluatu ondoren, zerbitzua eskaini dutenek esperientziaren inguruan azkeneko hausnarketa egin beharko dute. Amaieran, esperientziari buruzko memoria erraz eta erabilgarri bat prestatu beharko da, aurrera eramandako proiektua besteen esku geratzeko.

1.1.5. Ikaskuntza- zerbitzuaren onurak

Hurrengo lerroetan, zenbait autoreen aburuz ikaskuntza- zerbitzuaren metodologiak ekar ditzakeen onurak adieraziko ditut. Hasteko, Luna-k (2010) ikaskuntza- zerbitzuan oinarritutako praktika gauzatzeak dakartzan hezkuntza onurak aipatzen ditu. Horien artean, ikasleen sentsibiltate sozialaren garapena bultzatzen du. Izan ere, ikaskuntza- zerbitzuak komunitate bateko kide izatearen zentzua eta komunitate hori hobetzeko edo beharrezkoak diren alderdiak eraldatzeko konpromisoa sustatzen da. Gainera, ikasleen ahalduntzea bultzatzen du. Izan ere, ikasleak dira prozesu osoaren protagonista eta proiektuaren garapenean erantzukizun handia dute. Modu berean, metodologia honek zeharkako kompetentziak garatzen laguntzen du, hala nola, erabakiak hartzea, balorazioak egitea, arazoak aztertzea, konponbideak bilatzea, pentsamendu kritikoa garatzea, taldean lanean aritzea, denbora kudeatzea, etab.

Aurretik aipatutakoarekin bat egiten dute Puig, Battle, Bosch eta Palos-ek (2007), hau da, ikaskuntza- zerbitzuak parte hartzaileen aspektu desberdinetan onurak ekartzen dituela aipatzen dute. Hasteko, autore hauek adierazten dute ikaskuntza- zerbitzu batean parte- hartzeak akademikoki, sozialki, emozionalki eta pertsonalki eraldatzeko aukera ematen du. Horrez gain, ikasleen prestakuntza prozesua errazten eta optimizatzen du. Era berean, hezkuntzako profesionalen metodologia eta kultura aldatzen laguntzen du, irakasle taldeek eta ikasleek eskolaren inguruan duten irudia eraldatuz.

Horrez gain, ikaskuntza- zerbitzuak ekarpen ugari sorrarazten ditu alderdi ezberdinetan. Hasteko, onurak eskaintzen dizkie bai zerbitzua eskaintzen duten pertsoneri eta jasotzen dutenei. Gainera, ikasleen garapena bermatzen du eta hezkuntza eta metodologia tradizionalen proposamenak alde batera uzten ditu. Era berean, ikaskuntza- zerbitzua komunitateko beste eragile batzuekin batera eta modu koordinatuan lan egiteak bultzatzen du, gazteak etorkizunean kausa solidarioetan parte hartzeko aukera sustatuz. Modu berean, ikaskuntza- zerbitzuak hezkuntza instituzioen eta giza erakundeen arteko elkarlana errazten du eta hiritar arduradun eta gizartearen hobekuntzan eragiten du (Rubio, 2008).

Laburbilduz, ikaskuntza- zerbitzua hezkuntza-proposamena da, eta ikasketa zein zerbitzua bateratzen ditu ondo egituraturako proiektu bakar batean. Bertan, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, inguruneko benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz. Aipatzekoa da asmo pedagogikoa eta asmo solidarioa uztartzen direla (Rubio, 2008).

1.2 Gorputz- adierazpena

Ikaskuntza- zerbitzuaren atala azaldu ondoren, egokia iruditu zait proposamen honetan gorputz- adierazpeneko saio batzuk garatzea. Izan ere, gorputz- adierazpenaren bidez ikasleen inklusioa berma daiteke eta, aldi berean, norberaren ezagutza eta kontrola bultzatzen da. Beraz, hurrengo paragrafoetan, gorputz- adierazpenaren kokapen historikoa, definizioa eta onurak azalduko ditut. Hala nola, gorputz hezkuntzaren garrantzia inklusioa bermatzeko.

1.2.1 Gorputz- adierazpenaren kokapen historikoa

Gorputz- adierazpenaren kokapen historikoa aztertzeak haren jatorria, jaso dituen egokitzapenak eta, gaur egungo praktikak ulertzeko aukera ematen digu. Gorputz- adierazpenaren kontzientzia eta harekiko interesa oso antzinakoak dira, gizateria bera bezainbeste esan genezake. Gorputz- adierazpenak antzinatek interesa piztu izan du, horren adibidetzat jo ditzakegu, Egiptoko kulturaren, Mesopotamiakoan, Indiakoan, Txinakoan, Kretakoan, Greziakoan, Etruriakoan, Erromakoan, Germaniarrean, kultura hebrearrean, eta zeltan gorputz- adierazpenak izandako presentzia baitago (Vizcarra, 2010).

Gainera, esan dezakegu gorputz- adierazpenak esplizituki existitu baino lehen, gorputz- adierazpenak psikologiaren, arte plastikoen eta gimnasiaren eraginak jaso zituela. Baina ez zen 1923ra arte, Jacques Copeau antzerki zuzendariak, gorputz- adierazpena terminoa erabili zuena dantza eta antzerki adierazpenei erreferentzia egiteko (Vázquez- Gómez, 1989).

Hortaz, gorputz- adierazpenaren jatorria XX. mendearen erdialdean kokatzen da, inkontzientearen, esperimintazioaren eta instintuen askapenaren garrantzia handitzen duten teorien babespean. Baita gorputzaren sormena eta adierazkortasun askea bultzatzeko beharra ere, gorputza, espazioa eta denbora elkartzen diren mugimendua tratatzeko beste modu bat sustatuz (Coterón, 2007).

1.2.2 Gorputz- adierazpenaren definizioa

Gorputz- adierazpenak definitzerako orduan, autorearen arabera modu desberdinetan definitu izan da. Autore batzuen aburuz, gorputz- adierazpena pertsonaren garapen fisiko, intelektual eta afektiboa sustatzen duen tresna da (Nicolás et al.,2010). Ildo beretik, Vizcarrak (2010) gorputz- adierazpena gorputzaren onarpenean oinarritzen dela azaltzen du. Gorputzaren mugimendu- aukerak aztertzen dira egoerak, emozioak, ideiak, bizipenak, pentsamenduak, eta abar deskribatzeko eta, horretarako, gorputza komunikatzeko eta adierazteko tresna da, keinuak eta mugimenduak eginez; batzuetan hitza erabiliz, beste batzuetan, ordea, ez. Honekin batera, Arguedas-ek (2004) gorputz- adierazpenari definizio hau ematen dio: gorputz- adierazpenak komunikazio-prozesu sortzailea erraztu nahi dio gizakiari, bere gorputzaren ezagutzatik, espazioaren erabileratik, materialetatik eta bere autokonfiantza indartzetik abiatuta.

Gorputz- adierazpenaren bultzatzaile handienetako batek, Stokoek (1974), honela definitu zuen gorputz- adierazpenak: norberak bere buruarekin eta besteekin harremanetan jartzeko aukera ematen duen dantza eta hizkuntza. Horrela, Méndez-Giménezek eta Martínezek (2017) ondorioztatu zuten gorputz- adierazpena eduki eraginkortzat jotzen dela gaitasun emozionala eta soziala, sormen motorra edo ikasleen arteko pentsamendu dibergentea garatzeko, eta horrek ongizate psikofisiko hunkigarria dakarrela berekin. Komunikazio modu horren bidez, ikasleak bere burua hauteman, ezagutu eta adieraz dezake; eta hori, aldi berean, beste ikaskuntza espezifiko batzuen oinarria izango da.

Bukatzeko, Viciano eta Arteaga-k (2004) aipatzen dute gorputz- adierazpenak gaur egungo hezkuntza errealitatearen parte dela eta pertsonaren adierazpen eta komunikazio gaitasuna garatzeko aukera ematen duela. Egile horien aburuz, gorputz- adierazpenak hiru kategoriatan baloratzen da:

1. Ezagutza pertsonala: desinhibizioa, ezagutza pertsonal adierazkorra eta ingurunerako egokitzapen pertsonala.
2. Pertsonen arteko komunikazioa: hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa
3. Barne komunikazioa: gure barne ni-ari buruzko informazioa

Era berean, gorputz- adierazpeneko praktikek aukera ematen diote ikasleari bere ingurunearekin harremanak izateko, bere burua ezagutzeko eta komunikazioa errazteko.

1.2.3 Gorputz- adierazpenaren onurak

Asko dira gorputz- adierazpenak ikasleen garapen osorako ekartzen dituen onurak. Gorputz- adierazpena oso erabilgarria da curriculumean zehaztuta dauden gaitasunak garatzeko, pertsonaren barne-barnetik hasi eta gizarteratzeraino eta ingurune hurbilarekin harremana izateraino lan egiten baitu. Ildo beretik, hezkuntzaren gorputz-adierazpenaren onurei dagokienez, Ramos, Cuellar eta Jiménez-ek (2012) honako hau nabarmentzen dute: gorputz-adierazpenaren, adierazkortasunaren, komunikazioaren eta sormenaren edukiak oinarritzen diren dimentsioek gaitasunen garapena errazten dute, zereginak egiteko eta diseinatzeko alderdi komunak partekatzen baitituzte. Gainera, eskuratutako ezagutzek hezkuntza formalean zentzua izateaz gain, bizitzako esparru guztietara transferitzen dira.

Bestalde, Learreta, Ruano eta Sierra-ren (2006) esanetan gorputz-adierazpenak harremanak, elkarrekintza pertsonala, lan kooperatiboa eta hizkuntza propioen sorkuntza sustatzen ditu. Horrez gain, harreman onak, besteeiko errespetua eta bestea ulertzeko eta ulertua izateko beharra sustatzen laguntzen du. Gorputz- adierazpeneko jarduerak bakoitzaren izaeran eragina dute, norberaren onarpenera bultzatzen dute eta autoestimua indartzen laguntzen dute.

Amaitzeko, aipatzekoa da Lehen Hezkuntzan, gorputz-adierazpena ezinbestekoa da curriculum- edukia osorik garatzeko. Izan ere, musikaren eta gorputz-adierazpenaren integrazioarekin ikasleak motibatzen dira eta ikasleen eta irakaslearen sormen gaitasuna berraurkitzen da; horrela, haurra izaki osotzat hartzen da, beren interes eta esperientziekin (Arguedas, 2004).

1.2.4 Gorputz- hezkuntzaren garrantzia inklusioa bermatzeko

Hurrengo lerroetan gorputz hezkuntzak gero eta aldakorragoa den gizarte baten inklusioa bermatzeko duen garrantzia aztertuko da. Soler, Flores eta Prat-en (2012) aburuz gorputz hezkuntzak kulturarteko hezkuntza garatzen laguntzen du bereziki, curriculumean jasotako komunikazio gaitasuna eta gizarte eta herritartasun gaitasunaren bidez, errespetua, onarpenera eta lankidetzara bezalako balioak eskuratzea lantzen duena, azken batean, bizikidetzara.

Esan dezakegu kirol praktikek oso errealitatearen hurbileko egoeretan jokatzeko aukera ematen dutela, talde lanaren bitartez, arauak zein kideak errespetatuz, besteak beste. Hau da, kirolak pertsonak hezitzen ditu, sentsibilizazioa handituz eta bakoitzaren gorputza errespetatuz. Gorputz- hezkuntzaren bidez, baloreak eta konpetentziak garatzen dira eta oinarritzeko balore horietatik, jolas zuzena, kooperazioa, partekatzea eta errespetua bezalakoak

dira garapena lortzeko beharrezkoak direnak. Kirolaren bidez ikasitako trebetasunak lagungarriak dira gizabanakoak ahalduntzeko eta ongizate psikosoziala areagotzeko, hala nola autoestimua eta besteekiko loturak. Gizarte harremanak sortzen, loturak eraikitzen eta gizabanakoen eta taldeen arteko komunikazioa hobetzen laguntzen du (Cansino, 2016).

Gainera Ríos-en (2017) hitzetan, jarduera fisikoa eta kirol jarduera ingurune natural batean partekatzea lagungarria da, jarduera horretan parte hartzen duten pertsonen sozializazio prozesurako. Baina, horretarako, egitura iraunkorrek ziurtatu eta bermatu behar dira, gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak komunitatean dauden baliabideez balia daitezen, kirola komunikazio bitarteko gisa erabiliz gero haien inklusioa eta normalizazio soziala erraztuz.

Amaitzeko, aipatu behar da egoera ahulean dauden kolektiboetan jarduera fisikoa eta kirola ikaskuntza- zerbitzuaren bidez egitearen arrakasta printzipio argi batzuetan oinarritzen dela. Hala nola, parte- hartzeko baldintza errazak, premia pertsonal eta kolektiboetara egokitzea, benetako onurak lortzeko ahalduntzea eta parte-hartzea bultzatzea, jarduera fisikoa egiteak duen onurei buruz motibazioa eta sentsibilizazioa eta azkenik, pertsonen bizitzan inpaktua eragiten duen zeharkako tratamendu globalizatzailea eskaintzea (Aramburuzabala et al., 2019).

Oro har, gorputz- adierazpenak onura ugariak ditu ikasleen garapenean, hala nola, harremanetan, elkarrekintza pertsonalean, lan kooperatiboan eta komunikazioan. Era berean, gorputz- adierazpenaren praktikak duen garrantzia inklusioa bermatzeko aztertzei aukera izan dugu. Hurrengo lerroetan, lan honen helburuak zehaztuko dira, helburu orokorretatik hasita eta espezifikoei bukatuz.

2. HELBURUAK

Atal honetan lanaren eta ikaskuntza- zerbitzuaren helburuak azaltzen dira, haurren ezaugarri zehatzak kontuan harturik eta aurrera eramango den zerbitzuaren asmoak aintzat hartuz:

- Nire formaziorako, ikaskuntza- zerbitzuaren bidezko metodologiak dituen onurak eta mugak aztertzea.
- Gorputz- adierazpenak eskaintzen dituen aukerak aztertzea haurren inklusio bermatzeko.
- Lan honen xede nagusia, bolondres moduan eskaintako zerbitzuak eskolaz kanpoko gorputz- adierazpeneko programazio bat garatzea da, herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko zailtasunak dituzten umeei zuzendua.

- Programatutako lau saioen bidez, haurrak jolasen bitartez gorputzaren eta hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko beharrezkoak diren jarrerak garatzea.
- Zerbitzu bat martxan jartzearen oztopoak eta mugetaz jabetzea, nire etorkizuneko irakasle lanbiderako beharrezkoak izango ditudan erremintak eskuratzeko.
- Azken lau urteetan zehar irakasle izateko eskuratutako gaitasunak azken lan batean islatzea, nire garapenaren prozesua aztertzeke eta berri emateko.

3. METODOA

Nire haurtzaroaren zati handi bat herri txiki batean pasata, lehen eskuan dakit herri txikietan haurrentzat dauden eskolaz kanpoko jardueren eskaintza ohia eta horrez gain, gurasoek haurrak hiri handietara eramateko zailtasunak. Horregatik, erabaki genuen Kanpezun gorputz-adierazpeneko programazio bat garatzea, herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko zailtasunak dituzten umeei zuzendua. Eskaintako zerbitzuak lau larunbatetan burutu zen goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00ak arte. Izan ere, gorputz- adierazpenak eskaintzen dituen aukerak aztertzea haurren inklusio bermatzeko aukera oso aberasgarria eta hezigarria iruditu zitzaidan. Esan beharra dago, zerbitzuaren hasieratik Kanpezuko udaletxearen laguntza eta babesa jaso dugula zerbitzua behar bezala aurrera eraman ahal izateko.

3.1 Testuingurua

Kanpezu Arabako ekialdeko udalerrri bat da, Arabako Mendialdeko nagusia eta Gasteiztik 38 kilometrotara. Gaur egun, 1081 biztanle ditu eta herri honetako biztanleriaren maila soziala eta ekonomikoa ertaina da eta honen barruan etorkin kopuru handia dago. Kanpezu nahiz eta herri txikia izan, familien premiei erantzuteko zerbitzu eta instalazio ugari ditu. Hala nola, Santikurutze Kanpezuko Ikastetxeak haurreskola, haur, lehen eta bigarren hezkuntzako eskaintza duena, ludoteka, gazteleku eta kultur etxea besteak beste. Zerbitzuen antolaketaren erreferentzia herria Kanpezu denez eta inguruko herriak hau baino txikiagoak direnez, esku- hartzea Kanpezuko herrian aurrera eramatea erabaki nuen.

Behin, zerbitzua martxan jarritako lekua deskribatuta, gorputz- adierazpenaren inguruko zerbitzua aurrera eramateko taldean zentratuko naiz. Zerbitzua 6-12 urteko haurrentzat zuzendu zen eta larunbatetan tailerretara bertaratutako haur kopurua egunez egun aldatzen joan zen. Lehenengo egunean 20 ume bertaratu ziren baina hurrengo saioetan haur kopurua 12- 15 bitartekoa izan zen. Taldearen haur gehienak Kanpezukoak baziren ere, inguruko herrietako

haurrak ere bazeuden, hala nola, Zuñigakoak, Antoñanakoak, Urbisukoak, Gasteizkoak, Aguilarrekoak eta Abadiñokoak. Esan beharra dago haur gehienek elkar ezagutzen zutela, denak Kanpezuko eskolara joaten baitziren eta adin ezberdinetako haurrak egon arren, proposatutako jolasak adin guztietara egokituta zeuden. Hizkuntzari dagokionez, eskainitako zerbitzua euskaraz egin zen eta aipatzekoa da ume gehienen ama hizkuntza euskara zela. Beraz, ez zen inolako zailtasunik egon euskaraz komunikatzeko.

Martxan jarritako zerbitzua bikoteka egin genuen, hau da, Iruri eta bion artean. Bakoitzak programazio bat garatu zuen, Iruriren kasuan jolas kooperatiboen inguruan eta, nire kasuan, gorputz- adierazpenaren inguruan. Zerbitzua hiru ordukoa izan arren, bakoitzak ordu eta erdi erabiltzen zuen bere proposamena gauzatzeko. Aipatzekoa da Irurik bere sekuentzia praktikan jartzen zuen bitartean nik laguntzaile eta behatzaile rola hartzen nuela. Errazagoa baita behaketa bi pertsonaren artean egitea, bakarrik egin beharrean.

Erabilitako espazioari dagokionez, zerbitzuaren lehenengo egunean Kanpezuko udaletxeak utzitako frontoia erabili genuen. Espazioa itxita zen, komunak eta beroketa- sistema zuen. Hurrengo egunetan eguraldi ona egiten zuenez, jokoak kanpoko parkean egitea erabaki genuen. Izan ere, parkeko zorua gomazkoa zen eta gorputz-adierazpeneko saioak egiteko aproposa zen. Haurrei egindako aldaketaren berri emateko, abisu bat jarri genuen frontoiko atean kokapen berriarekin, haur batzuk ez baitziren programaren hasieratik hurbiltzen (ikus 1.eranskina).

3.2 Programazioa

Garatutako sekuentzia didaktikoa gorputz- adierazpenean oinarritzea erabaki dut. Proposatuko diren jardueren bitartez, gorputzaren mugimendu-aukerak aztertuko dira egoerak, emozioak, ideiak, bizipenak, pentsamenduak, eta abar deskribatzeko eta, horretarako, gorputza komunikatzeko eta adierazteko tresna bihurtuko da, keinuak eta mugimenduak eginez; batzuetan hitza erabiliz, beste batzuetan, ordea, ez. Mugimenduaren bidez komunikazioa erraztuko duten jarduerak eta jolasak proposatuko zaizkie ikasleei gorputzaren inguruko ikerketa bultzatuz. Gorputza ezagutzeko eta keinuaren erabilera menderatzeko imitazio jolasak, koreografia ezberdinak sortu eta antzezpen txikiak egingo dituzte. Sekuentzia didaktikoak dituen helburuak lortzeko, jarduerak era progresiboan daude antolatuta saioz saio ikasleen premien arabera egokitutakoak. Hasierako jarduerak errazak, irekiak, eta era askotarikoak izango dira, eta zerbitzuak aurrera egin ahala, jardueren zailtasun maila areagotuko da.

Taldekatzeari dagokionez, proposatuko diren jardueren bitartez, ikasleek ikaskide guztiekin lan egiteko aukera izango dute. Esku- hartzea lau saioz osatuta dago eta saio bakoitzak ordu eta erdiko iraupena du. Saioak era progresiboan daude programatuta, eta gorputz- adierazpenaren lau multzo lantzen dira:

1. Saioa: Gorputza, ezagutzeko tresna, hau da, gorputzaren bidez nor bere gorputza ezagutzea eta kontrolatzea lortu nahi da, gorputza nahi dugun bezala erabiltzeko.
2. Saioa: Gorputza, komunikaziorako tresna. Keinuaren erabilera menderatzea besteekin komunikatzeko pertsonen arteko komunikazioa eta ulermena hobetu ahal izateko.
3. Saioa: Dramatizazioa. Gorputzak eta mugimenduak eskaintzen dituzten baliabide adierazkorak erabiltzea sentsazioak, ideiak eta gogo egoerak komunikatzeko, baita gorputzaren mezuak ulertzeko ere.
4. Saioa: Dantza. Gaitasun adierazkorak garatzea, sentimenduen, sentipenen, ideien eta pentsamenduen adierazpenaren bitartez; gaitasun erritmikoak eta dantzak garatuz.


Sekuentzia- didaktikoaren egiturari erreparatzen badiogu, saio guztiek antzeko egitura jarraitzen dute eta jarduerak hiru fasetan banatuta daude; aktibazio fasea, atal nagusia eta lasaitasunera buelta. Saioaren hasieran lurrian borobil batean esertzen ginen sekuentzia didaktikoaren helburuak eta saioaren nondik- norakoak azaltzeko. Bukatzeko, ikasleak borobilean jartzen ziren eta irakasleak bideratutako hausnarketa txiki batekin bukatzen genuen. Honen ostean, ikasleek autoebaluazioa egiten zuten. Autoebaluazioa egiteko diana bat erabiliko dugu; diana lau zatitan banatuta dago eta zati bakoitzak galdera bat du. Honako hauek dira galderak: Dibertitu naiz? Arauak eta kideak errespetatu ditut? Gogotsu parte hartu dut? Zerbait ikasi dut? (ikus 2. eranskina). Ikasle bakoitzak 1 etik 4 rako zenbakietako bat aukeratu egin beharko dute hura margotu, 1 zenbakitik (gutxi) eta 4 zenbakiraino (oso ondo).


Bestalde, esku-hartzearen diseinuan definitutako helburuak kontuan hartuta, ebaluazio- irizpide batzuk ezarri ditut proposamenaren amaieran hurren ebaluazioa egiteko. Horrela, ikasleen jarraipena eta esku-hartzearen erabilgarritasuna baloratu ahal izango dira. Arestian aipatu dudak bezala, ebaluazioa irizpide desberdinen arabera egingo bada ere, jarreraren eta parte-hartzearen ebaluazioan ere oinarrituko da (ikus 3.eranskina).

Hona hemen sekuentzia- didaktikoaren lehenengo saioaren errubrika:


2. irudia: Sekuentziaren lehenengo saioa


1.SAIOA			
SAIOAREN IZENA	Gorputza arakatuz	EGUNA	2022/03/05
LEKUA	Frontoian	DENBORA	Ordu bat eta 30 minutu
MATERIALA	- Bozgorailua - Txartelak	MAILA	6- 12 urte
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Gidariaren aurrezagutzak identifikatzeko eta gorputz adierazpenean murgiltzeko. - Nork bere gorputz-jardueren mugimendu-ahalbideak arakatzea eta horietaz gozatzea, besteekin harremanetan jartzeko. - Gorputz atalak ezagutzea, mugimendu eta keinu zehatzak egin ahal izateko. 		

BEROTZE FASEA					
1. J A R D U E R A	JARDUERA	Azalpenak emateko unea	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Unitate Didaktikoaren nondik norakoak azalduko ditut eta gorputz-adierazpenaren inguruko azalpena emango diet.				

BEROTZE FASEA					
2. J A R D U E R A	JARDUERA	Zenbakien jolasa	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Haurrak kiroldegian zehar ibiliko dira musikaren erritmoa eramanez. Gidariak zenbaki bat esaten duenean, dagokiena egin behar dute:</p> <p>1-Bakoitzak bere alboan dagoena besarkatu behar du.</p> <p>2-Alboan dagoenari, zerbait polita esan.</p>				

	3-Albokoarekin dantzatu behar dugu.	
--	-------------------------------------	--

BEROTZE FASEA				
3. J A R D U E R A	JARDUERA	Zorua aldatzen doa	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	
<p><u>1.Atala:</u> Gidariak hainbat mezu emango ditu zoruari buruz eta hurrek adierazpena egin beharko dute gidariaren mezuei jarraituz; zorua benetan horrela egongo balitz bezala ibili beharko dute. Adibideak: aldapa gora, aldapa behera, lokatzez betetako zorua, txiklez betetako zorua, itsaskor, izoztua, errekak...</p> <p><u>2.Atala:</u> Gidariak ibiltzeko moduak esango ditu eta hurrek egoera horiek gimnasioan zehar irudikatu beharko dituzte. Adibidez: ipotxak gara, erraldoiak, robotak, 2 urteko haurrak, 80 urteko pertsonak, kamara azkarrean eta kamara geldoan.</p>				

ATAL NAGUSIA				
4. J A R D U E R A	JARDUERA	Aulkien jolasa	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	
<p>Lurrean gorputz-atalak dituzten txartelak jarriko ditugu; pertsona kopurua baino bat gutxiago egongo da. Umeek txartelen inguruan dantzatuko dira eta, musika gelditzen denean, txartel batean jarriko dira, bertan adierazita dagoen gorputz-adarra txartel gainean kokatuz. Txartelik gabe geratzen denak txartelak lekuz aldatzeko baimena du.</p>				


ATAL NAGUSIA				
5. J A R R	JARDUERA	Kutxa misterioitsua	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	


D U E R A	<p>Kutxa baten barruan gorputz-atal batzuen izenak eta egoera bat egongo dira. Banan-banan irudizko gauzak hartzen joango dira, eta objektuaren antzezpena egin beharko dute besteek zer den asma dezaten. Adibideak: eskuarekin kaletik taxi bat eskatzen duzu, oinarekin futbolera jolasten zaude, korrika egiten zaude, erortzen zara eta belaunean mina hartzen duzu...</p>	
-----------------------	---	--


ATAL NAGUSIA					
6. J A R D U E R A	JARDUERA	Guztien koreografia	DENBORA	10 minutu	
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde txikietan	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Haurrak borobilean eseriko dira eta haien artean nor hasiko den erabakiko dute. Aukeratu duten haurra altxatu eta mugimendu bat egingo du. Hurrengoak aurrekoak egindako mugimendua imitatzeaz gain, beste bat gehituko du. Pixkanaka, bakoitza mugimendu berri bat gehitzen joango da hasierako haurrari txanda berriz ere iristen zaion arte. Jarduera honen bidez haien mugimenduez jabetzeaz gain, haien memoria gaitasunaz ohartzeko aukera izango dute, horrela haien burua hobeto ezagutuz.</p>				

ATAL NAGUSIA					
7. J A R D U E R A	JARDUERA	Taldekatzen	DENBORA	10 minutu	
	MATERIALA	- Bozgorailua - Zapia	TALDEKATZEA	Talde txikietan	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Banaka jarraituko dute zapiarekin dantzan. Oraingoan, gidariak adierazten duen kopuruaren arabera taldeak osatuko dituzte: 4, 3, 5, 10, 7... Azken zenbakia 5 izango da eta, horrela, hurrengo jokorako taldeak eginda utziko ditugu.</p>				


ATAL NAGUSIA				
8.	JARDUERA	Erritmoa jarraitu	DENBORA	10 minutu

J A R D U E R A	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde txikietan
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	Taldetan banatuko dira biribilean jarriz. Txaloka, oinekin eta behatzekin, bakoitzak proposamen bat egingo du, eta besteek errepikatu egin beharko dute.			

LASAITZE FASEA				
9. J A R D U E R A	JARDUERA	Hasi dantzatzen!	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	"Oso ondo egiten duzulako" abestia kantatu eta dantza egingo dute. ABESTIA: Oso ondo egiten duzulako, mugitu besoak olatuak bezala. Suabe, suabe, su, su suabe EI!! _____ HASI DANTZATZEN!!!			

LASAITZE FASEA				
10. J A R D U E R A	JARDUERA	Tornadoa	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	Guztiak eskutik helduta egongo dira marra baten gainean; beraz, erpinetan daudenek esku bat libre izango dute. Horietako bat bere buruari birak ematen hasiko da, guztien artean tornado bat osatzen duten arte. Orduan, eskuak askatu gabe lekualdatzen saiatuko dira.			

LASAITZE FASEA				
11. J A R	JARDUERA	Zer moduz gaurko saioa?	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	Autoebaluazio fitxa	TALDEKATZEA	Talde osoan eta banaka
	AZALPENA		MARRAZKIA	

D U E R A	Haurrak borobilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Ondoren, autoebaluazioa egingo dute.	
-----------------------	--	---

Oharra: Egileak egina.

Sekuentzia- didaktikoaren hurrengo hiru saioak ikusteko jo 4. eranskinera.

3.3 Prozedura

Atal honetan zerbitzua aurrera eramateko kronograma baten bidez egindako prozesua azalduko dut. Hau da, unibertsitatearekin eta Kanpezuko udalarekin izandako bilerak. Hasteko, irailean nire Gradu Amaierako Laneko (GrAL) tutorea nirekin harremanetan jarri zen Ikaskuntza Zerbitzuaren proposamena aurkezteko. Izandako bilera Hezkuntza eta Kirol fakultateko irakasle talde batek GrAL-aren formakuntza modu kolaboratiboan eta gidatuan egitea eskaini ziguten. Hortik aurrera, urtean zehar beste zortzi formakuntza jaso ditut Ikaskuntza Zerbitzuaren prozesua osatzen joateko. Ondoren, Iruri eta biok Kanpezuko Udalarekin harremanetan jarri ginen korreo elektronikoen bidez (ikus 4.eranskina), eta bi bilera izan genituen; lehena, gure proposamena aurkezteko, eta bigarrena, zerbitzua hasi aurretik programatutako sekuentzia- didaktikoaren oniritzia izateko. Bidean, beste tutoretza batzuk izan ditut nire GrAL-eko tutorearekin nire prozesuaren jarraipena izateko. Gainera, Irurik eta nik zerbitzua aurrera eramateko beste bilera batzuk ere izan ditugu, hala nola programazioaren plangintza, herrietako familiei informazioa emateko kartelaren diseinua eta herrietan kartelen banaketa egiteko (ikus 5. eranskina).

1.Taula. Zerbitzuaren kronograma

Data	Egitekoa
2021/09/14	Proiektuaren aurkezpena.
2021/10/19	1. formakuntza: Marko Teorikoa.
2021/10/26	2. formakuntza: Genero perspektiba.
2021/11/02	3. formakuntza: Zerbitzuaren diseinua.
2021/11/16	4. formakuntza: Lan akademikoak egiteko IKT eta aukera lagungarriak.
2021/11/30	5. formakuntza: Egunerokoa eta ebaluazio tresnak.

2021/12/17	Kanpezuko kultura zinegotziari korreoa bidali.
2021/12/20	Irurirekin bilera: zerbitzuaren aurretik.
2022/01/10	Irurirekin bilera: zerbitzuaren aurretik.
2022/01/19	Irurirekin bilera: zerbitzuaren aurretik.
2022/02/04	Kanpezuko kultura zinegotziarekin bilera presentziala.
2022/02/23	1. tutoretza nire GRaL-eko tutorearekin (egindako lanaren ekarpenak).
2022/02/26	Zerbitzuaren lehen saioa: inor ez zen bertaratu.
2022/02/28	Irurirekin bilera: zerbitzuaren "bitartean".
2022/03/05	Zerbitzuaren lehen saioa.
2022/03/12	Zerbitzuaren bigarren saioa.
2022/03/19	Zerbitzuaren hirugarren saioa.
2022/03/26	Zerbitzuaren laugarren saioa.
2022/03/28	2. tutoretza nire GRaL-eko tutorearekin (egindako lanaren ekarpenak).
2022/04/02	Irurirekin bilera: zerbitzua bukatu eta gero balorazioa egiteko.
2022/04/12	6. formakuntza: Metodoa.
2022/04/26	7. formakuntza: Analisia, emaitzak eta ondorioak.
2022/06/14	8. formakuntza: Defentsa.

Oharra: Egileak egina.

3.4 Erabilitako tresnak informazioa biltzeko

Hurrengo lerroetan, zerbitzuan zehar erabilitako baliabide materialak eta baita informazioa jasotzeko tresnak zeintzuk izan diren azaltzen dira. Zerbitzuaren hasieran unibertsitateko irakasle taldeak esku- hartzearen diseinua egiten joateko diseinuaren txantiloia erraztu ziguten. Hortaz, zerbitzuaren lehenengo urratsa zerbitzuaren programazio fitxa betetzea izan zen.

1. taula: Zerbitzuaren diseinu fitxa

Izenburua	ASTEBURUETAN ONDO PASATZEKO PREST?
Eskola / Erakundea	KANPEZUKO UDALA
Zerbitzuaren helburua(k)	
- Lan honen xede nagusia, bolondres moduan eskainitako zerbitzuak eskolaz kanpoko gorputz-adierazpeneko programazio bat garatzea da, herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko	

- zailtasunak dituzten umeei zuzendua.
- Programatutako lau saioen bidez, haurrak jolasen bitartez gorputzaren eta hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko beharrezkoak ditzen jarrerak garatzea.

Ekintzak

Helburua lortzeko egin beharreko ekintzen ezaugarri zehatzak.

- Zerbitzua prestatzeko.
- Zerbitzuaren ezaugarriak.
- Sarrera eskolan/erakundearen eta taldearen.
- Zerbitzua martxan dagoen bitartean.
- Itxiera.

Deskribapena: azpi-helburua, jarraibideak/pausoak, baliabideak (denbora, materialak...).

Erakundea:
Ikasle taldea:

ZERBITZUA MARTXAN DAGOEN BITARTEAN

1.JARDUERA

- Helburu nagusia:
- Garapena
- Taldekatzea:
- Materialak:
- Espazioa:
- Ebaluazioa:

Kronograma

Ekintzen egutegia.

Data / Denbora-tartea	Ekintza
2022/03/05 (10:00- 13:00)	Gorputza arakatuz
2022/03/12 (10:00- 13:00)	Ahotsa erabili gabe komunikatu gaitezke?
2022/03/19 (10:00- 13:00)	Antzerkigileak gara!
2022/03/26 (10:00- 13:00)	Dantza dezagun!

Dokumentazioa

Informazioa nola jasoko duzu?

Zerbitzuan zehar informazioa jasotzeko behaketa aktiboa egingo dut eta egunerokoa egiteko grabagailu sistemaz baliatuko naiz. Hala ere, parte- hartzaileekin elkarrizketak egingo ditut eta saio bakoitzaren amaieran haurrek autoebaluazio txiki bat egin beharko dute. Era berean, saio bakoitzaren amaieran hausnarketa gidatu bat egingo da nik planteatutako galdera batzuen bidez.

Oharra: Egileak egina.

Zerbitzuaren prozesuan hainbat izan dira erabilitako tresnak informazioa jasotzeko. Zerbitzua egitera joan aurretik, zerbitzua eman bitartean eta zerbitzua bukatu eta gero egunerokoa edo narrazio etnografikoa izan da tresna nagusia praktikaren inguruan hausnarketa egiteko.

Bertan, zereginak nola gauzatu diren, esperientziak nola eboluzionatu duen, zerbitzuan egindakoaren kontzientzia eta esperientziaren analisia egiteko lagungarria izan da. Aipatu beharra dago, zerbitzuaren bitartean egunerokoa egiteko grabazio- sistema erabili dudala eta ondoren, horren transkripzioa egin dudala. Izan ere, saio bakoitzaren ondoren errazagoa eta erosoagoa egiten zitzaidan gertatutakoari buruzko informazioa grabagailu baten bidez jasotzea, dena idatzi behar izatea baino. Egunerokoa sentipenak, zalantzak, galderak eta beldurrak jaso ditut, baita bidea erraztu edo oztopatu duten faktoreak ere. Gainera, hasierako proposamenetik egin behar izan ditudan aldaketak edo moldaketak, gertaera kritikoak, anekdotak, argazkiak eta mota guztietako ebidentziak ere jaso ditut. Bestalde, informazioa jasotzeko ikasleek saio bakoitzaren bukaeran egin beharreko autoebaluazio fitxa erabili dut. Bertan, ikasleen erreflexioak, motibazio- maila eta zailtasunak islatzen dira, besteak beste.

3.5 Informazioaren analisia

Prozesuan zehar jasotako informazio guztiaren analisia egiteko, sistema kategoriala erabili dut. Sistema kategoriala kategorien multzoa da, beren harremanekin, ikerketa gidatzen dutenak eta datuen analisia babesten dutenak (Galeano, 2004). Hortaz, bildutako informazioa interpretatzeko egindako lehenengo urratsa informazioa ordenatzea izan da, hau da, kodeak jarri. Ondoren, bildutako informazioa nik sortutako kategoria batzuen arabera sailkatu dut (ikus 3. taula). Sistema kategorialaren taula lau dimentsio handitan banatuta dago; esperientziak eta anekdotak; planifikazioa; harremanak eta sentipenak. Dimentsio horietako batzuk, aldi berean, kategoria batzuekin lotuta daude, eta horiek, beste azpikategoria batzuekin lotuta daude. Bukatzeko, informazioa segmentatu dut, hau da, galderen bidez informazioa antolatu dut, eta azkenik, sailkatutako materiala irakurri eta interpretatu dut.

2.taula: Sistema kategorialaren taula

Dimentsioak	Kategoriak	Azpikategoriak
Esperientzia eta anekdotak		
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Arauak
		Denboraren kudeaketa
		Espazioa eta materiala
		Taldekatze motak
	Faktore erraztatzaileak	Kanpezuko udaletxea eta bertako langileak
		Iruriren laguntza
		Haurren jarrera
		Taldearen kopurua
	Faktore oztopatzaileak	Denboraren kudeaketa
		Haurren jarrera
		Taldearen kopurua
		Haur berriak
	Proposamen didaktikoaren ebaluazioa eta balorazioa	Nire balorazio pertsonala
		Helburuen lorpena
		Arazoak
		Haurren balorazioak
		Zailtasunak
Harremanak	Umeen arteko harremanak	
	Hezitzaile- umeen harremanak	
Sentipenak, kezkak eta zalantzak		

Oharra: Egileak egina.

4. EMAITZAK

Atal honetan zerbitzuan zehar bildutako informazio guztiaren analisisa egingo da. Horretarako, aurretik aipatu dudan moduan lau dimentsio handitan sailkatu dira emaitzak.

4.1 Esperientzia eta anekdotak

Zerbitzu honen bidez nire garapen pertsonalerako zein profesionalerako oso aberasgarriak izan diren esperientzia eta anekdota ugariak bizi izan ditut. Lehenengo egunetik zerbitzu bat antolatzearen zailtasunaz eta oztopoaz ohartu nintzen. Bai eta zerbitzu baten atzean dagoen lan eta denbora guztiarena ere.

Esku- hartzearen lehen eguna da, oso urduri esnatu naiz, ez baitakit haurrak animatuko diren tailerrera etortzera. Irurirekin hitz egiten dut eta esaten dit Kanpezuko ume batek ere ez diola esan joango denik. Une horretan, pentsamendu negatibo asko etortzen zaizkit burura, eta zerbitzuarekin aurrera jarraitzeko gogoia kentzen zait. Kanpezora joateko autoa hartu eta oso jarrera ezkorrekin noa, baina umeren bat animatuko den itxaropen pixka batekin. Kanpezura iristen naiz eta Iruri eta ni frontoira hurbiltzen gara, jolasak egingo diren lekura. Eta espero genuen bezala, ez dago umerik. Ordubete itxaroten dugu umeren bat beranduago animatzen bada, baina azkenean ez da inor etortzen. Hori dela eta, Irurik eta biok herrian zehar eta ikastetxeko atean zerbitzuaren inguruko kartel informatibo gehiago jartzea erabakitzen dugu. Herriatik ama batekin topo egiten dugu eta esaten digu arratsaldean Kanpezun inauteriak ospatzen direla, eta horregatik haur asko ez direla animatu goizeko tailerrera. (2022/02/26, egunerokoa).

Proposamen didaktikoa 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta bertan programatutako jolasak adin tarte horretara egokituta daude. Haur txikiagoak hurbiltzeak sekuentziaren dinamikotasuna moteltzea eragiten du, eta horrek beste haurrak aspertzea eragiten du.

Zerbitzuaren bigarren eguna da, eta zerbitzuaren kartelean 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua dela jarri badugu ere, 4 eta 5 urteko lau haur etorri dira. Hasieran haiekin jolasten saiatu gara, baina oso zaila izan da, ezin baitzuten beste haurrekin parte hartu. Azkenean, herriko denda batera korrika batean joan naiz puxikak erostera eta Irurik eta biok puxikak margotzen jartzea erabaki dugu, eta zerbitzua amaitzean gurasoei esan diegu txikiak zirela 6- 12 urteko haurrekin jolasteko. (2022/03/05, egunerokoa).

Proposamen didaktikoa gorputz- adierazpenean oinarrituta dago. Lehenengo egunean hainbat jolas proposatu nituen haurrak pixkanaka gaien sartzeko eta hasieratik hurrek oso jarrera positiboa eta parte- hartzailea hartu zuten.

Lehen saioan "imajinatu..." izeneko jolasean, 80 urteko pertsonak balira bezala jokatu behar zutela esan dudanean, haur batek musukoa bibote bezala jantzi du eta 2 urteko ume gisa jokatu behar zutela esan dudanean, beste haur batek musukoa kendu du, 6 urteko haurrak ez baitaude behartuta musukoa jantzita eramatera (2022/03/05, egunerokoa).

Orokorrean, zerbitzua behar bezala garatu zen, baina egia da lehenengo egunean inor ez hurbiltzea jardueran parte hartzera, zerbitzu bat antolatzearen zailtasunaz eta egindako lanak motibatuta eta seguru jarraitzeak duen garrantziaz ohartu ginela. Hala eta guztiz ere, herrietako hurrei parte hartzera animatzeko eskatzen jarraitu genuen. Horretarako, kartel gehiago jarri genituen inguruko herrietan zehar, Kanpezuko ikastetxeko irakasleekin hitz egin genuen hurrei jarduera gogorarazteko eta familia ezberdinekin jarri ginen harremanetan. Baina esan beharra dago hurrengo saioetan hurren parte-hartzea oso altua izan zela eta haien jarrera eskertzekoa izan zela. Adinari dagokionez, adin desberdinekin lan egiteko aukera izan dut eta horrek esperientzia gehiago biltzeko aukera eman dit. Hala ere, adin oso desberdineko hurrekin lan egiteak jolasak moldatzeak eta adin bakoitzeko gaitasunetara egokitzeak duen garrantziaz ohartzea eragin dit.

4.2 Planifikazioa

4.2.1 Aspektu metodologikoak

Zerbitzuaren hasieran ez genuen araurik zehaztu, baina errutina bat jarraitu beharraren garrantzia azpimarratu genuen. Hau da, saio bakoitzaren hasieran zirkulu batean eseri behar ziren eta bakoitzak bere izena "Nor etorri da?" zerrendan idatzi behar zuen. Era berean, joko bat azaltzeko, isilik eta zirkulu batean eserita egon beharraren garrantzia barneratu zuten.

Lehenengo egunean zirkulu batean esertzeko eskatu genien, bakoitzak bere burua aurkeztu ahal izateko, eta hurrengo asteetan egingo genuen sarrera labur bat egiteko. Egia da haur txikienei gehiago kostatzen zitzaiela geldirik geratzea, baina pixkanaka errutina hori barneratzen joan ziren. (2022/03/05, egunerokoa).

Gaur jolasten ari ginen eta ume batek ez zuen jolasten jarraitu nahi. Nigana hurbildu da eta joan nahi zuela esan dit. Ni saiatu naiz konbentzitzen geratzeko, amaitzeko oso gutxi geratzen baitzen. Jolasarekin jarraitu dugu eta haurra ez zegoela

konturatu naiz, eta urrutian herriko plazan ikusi dut bere amaren bila. Harengana hurbildu naiz, eta azaldu diot ezin duela abisatu gabe alde egin, eta are gutxiago bakarrik. (2022/03/12, egunerokoa).

Uste genuen umeek nahiko barneratuta zituztela bizikidetza-arauak, eta, beraz, erabaki genuen arau horiek ez gogoraraztea eta zuzenean azaltzea guretzat beharrezkoak ziren arauak. Gertatutakoarekin, beharrezkoa ikusi genuen haurrekin hitz egitea, eta azaldu genien tailerlean zeuden bitartean guri kasu egin behar zigutela eta edozer gauza egiteko guri galdetu behar zigutela. Behin, arauak jarrita, ikasleek bigarren saioaren hasierako momentutik arauak errespetatu zituzten eta horren bitartez, saioaren dinamika ere hobetu zen.

Denboraren kudeaketa dela eta, eskainitako zerbitzua hiru ordukoa izan arren, Irurik ordu eta erdi ematen zuen jolas kooperatiboak lantzen, eta nik beste ordu eta erdi gorputz-adierazpeneko saioa egiteko. Programatutako esku-hartzea planifikatuta zegoen denbora jakin batean egiteko, baina zailtasunak izan nituen denboraren kudeaketarekin.

Gaur ere zailtasunak izan ditut denboraren kudeaketarekin, eta, beraz, programatuta neuzkan bi jolas egin gabe geratu dira. Izan ere, "Orkestra zuzendaria" jokoan, haurrek berriro egiteko eskatu didate. Niri ideia ona iruditu zait, paperean oso sartuta eta oso pozik ikusi ditudalako. Nik uste dut beharrezkoa dela hurrei entzutea, eta ez programatutako jolas batzuk ditugulako denak egin behar izatea, haurrak dibertitzen ari ez badira ere. (2022/03/05, egunerokoa).

Gaurko ordu eta erdian jolas bat geratu zait egin gabe, hiru haurrek alde egin behar izan baitute saioa amaitu baino lehen eta horrek jolasaren garapena oztopatu du. (2022/03/26, egunerokoa).

Zerbitzuaren hasieran denbora kudeatzea zailagoa izan zen, baina zerbitzua aurrera egin nuenean, saioak egokitzen joan nintzen jarduera gutxiago eta esanguratsuagoak aukeratzen.

Espazioa eta materiala kontuan izanda, Kanpezuko Udalak frontoia utzi zigun saioak aurrera eramateko. Horrela, euria edo hotza egingo balu, leku itxi bat izango genuke.

Gaur Kanpezuko frontoian egin dugu zerbitzuaren lehenengo saioa, baina eguraldi ona egiten zuenez, haurrek jarduerak kalean egiteko eskatu digute. (2022/03/05, egunerokoa).

Haurrek aurreko saioan esan zigutena kontuan hartuta, eta eguraldi ona egiten zuela kontuan hartuta, frontoiaren aurreko kaleko parkean saioa egitea erabaki dugu. Kalean geundenez, umeak pozago zeudela ikusten zen, eta gainera parke osoa guretzat bakarrik eduki dugu. Gainera, jolas askorentzat parkeko zabuak oso

erabilgarriak izan dira. Beraz, Irurik eta biok erabaki dugu hurrengo saioak parkean egingo ditugula, eguraldi txarra egiten ez badu. (2022/03/12, egunerokoa).

Erabilitako espazioaren aldaketak sekuentziaren garapenean eragin oso positiboak izan zituela iruditzen zait. Izan ere, herriko parkea haurrek oso ondo ezagutzen duten espazioa da eta seguru sentitzen diren lekua da. Gainera, gorputz-adierazpeneko jarduerak aurrera eramateko, oso garrantzitsua iruditzen zait haurrek ondo moldatzen diren eta erlaxatuta sentitzen diren espazio batean egitea, aske eta seguru sentitzeko. Frontoia, aldiz, eskolarekin lotzen duten gunea da, eta horregatik nabaritu zen lehen saioan ez zeudela hain gustura.

Bestalde, aurrera eramandako esku-hartzean ia ez dut materialik erabili. Batez ere, nik eramandako bozgoragailua eta prestatutako materiala.

Gaur haur batek baloi bat ekarri du, nik zertarako ekarri duen galdetu diot, eta berak esan dit bere urtebetetzean oparitu ziotela eta jolas batean erabiltzea nahi zuela. Nik azaldu diot gorputz-adierazpeneko jardueretan ez genuela baloiaren beharrik izango, baina saioaren amaieran joko bat aukeratzen utziko niola baloia erabiltzeko. (2022/03/19, egunerokoa).

Gorputz-adierazpeneko saioetan ez genuen material askorik erabiltzen, baina lehenengo saioan bozgorailuarekin musika jarri nuen jarduera baterako, eta une horretatik aurrera umeek musika jarrita uzteko eskatzen zidaten. Musikak gehiago animatu eta motibatzen zituen haurrek.

Planifikatutako sekuentzian jardueraren arabera taldekatze mota desberdinak egon dira eta taldekatze motaren arabera emaitza desberdinak ikusi dira. Jarduerak, oro har, taldeka planteatu dira, jardueren ezaugarriak kontuan hartuta. Hala ere, haurrek ume guztiekin egoteko saiatzen nintzen haien artean elkar ezagutzeko aukera izateko.

Gaurko saioan gidatzeko prest izeneko jolasean, bi talde egiteko eskatu diet ikasleei. Hasieran asko kostatu zaie ados jartzea eta taldeak egitea, baina behin taldeak eginda zituztela, konturatu naiz mutilak eta neskak banatuta zeudela. Beraz, gertatutakoaren berri eman diet eta taldeak mistoak izan behar zirela azaldu diet. Une horretan, ikasleak arazorik gabe nahastu dira, talde mistoak sortuz. (2022/03/19, egunerokoa).

Nire ustez, beharrezkoa da umei autonomia tarte bat uztea eta haien artean taldeak adostea. Hezitzaile bezala ohituta gaude taldekatzeak egitera, bai denbora arazoengatik, bai erraztasunagatik. Hala ere, hurrei taldekatzeen ardura uztea onuragarria da, bai umeentzat, bai hezitzaileentzat. Alde batetik, umeen arteko harremanak ezagutzeko aukera ematen digu, eta, bestetik, hurrei beren arteko komunikazioa lantzeko eta beren autonomia bultzatzeko aukera

ematen die. Egia da umeei taldekatzeak egiten uzteak ondorio batzuk dituela, horien artean lehen aipatu dudana, hala nola, generoaren arabera banatzea. Hori gizartetik jasotzen dituzten estimuluengatik inkontzienteki egiten badute ere, hezitzaile gisa mota guztietako jendearekin harremanak izatearen garrantzia jakinarazi behar diegu. Bestalde, taldekatzeak ausaz egitea batzuetan desorekak ekartzen ditu eta nire esku- hartzearen jarduera batean argi geratu zen.

Hirugarren saioan, amaiera asmatu jolasa egiteko hiru talde ausaz egin ditut. Sortutako hiru taldeak nahiko desorekatuta geratu dira. Izan ere, talde batean 11 eta 12 urteko ikasle gehienak zeuden, bestean 6-7 urtekoak eta hirugarren taldean 8-9 urtekoak. (2022/03/19, egunerokoa).

Egunerokoa jasotako hitzetan ikusten den bezala taldeak ausaz egiteagatik umeen artean desoreka nabariak egon daitezke. Horrek, eragina zuzena dauka jolasen garapenean eta emaitzetan. Izan ere, taldearen barruan maila desberdinetako haurrak egotea jolasak izugarri aberasten du, haien artean elkar laguntzen direlako. Hau da, talde batean zeuden hurrek ipuinaren hasiera irakurtzeko arazoak izan zituzten, aldiz, 11 et 12 urteko haurren taldean arazoak izan zituzten sormenarekin. Egia da, beste batzuetan aldiz, nik neuk egiten nituen taldekatzeak eta batzuetan haur batzuk haserretu egiten ziren egokitutako taldea ez zutelako gogoko.

Gaurko saioan elkarrekin dantzan jolasean haurrak bikoteka jarri ditut eta haur bat haserretu egin da eta ez zuen jolasa egin nahi, ez dudalako bere lagunarekin jarri. (2022/03/26, egunerokoa).

Oro har, haurrak nahiko ondo moldatu dira guztien artean, eta ez da gatazka askorik sortu egindako taldeengatik. Hala ere, egoera horren aurrean, jarduera egitera eta haur egokituarekin jolastera animatu nuen haurra. Esan behar dut taldekatzeak ezinbesteko alderdia dela jardueren garapenean, eta askotan ez diogula merezi duen garrantzia ematen. Hortaz, taldekatzeak egiterakoan zenbait irizpide kontuan izatea guztiz beharrezkoa ikusten dut haurren garapena eta parte- hartzea bermatzeko.

4.2.2 Faktore erraztatzaileak

Zerbitzuan zehar izandako faktore erraztatzaileetako bat, Kanpezuko udaletxea eta bertako langileak dira. Izan ere, haiekin harremanetan jarri ginen lehenengo momentutik, laguntzeko eta errazteko jarrera erakutsi ziguten. Hasieratik, Kulturako zinegotziarekin izandako harremana oso positiboa izan da, bai zerbitzua bideratzeko, bai zerbitzuaren zenbait alderdi adosteko. Berarekin harremanetan jarri ginenetik, laguntzeko prest zegoela adierazi zigun, materiala eta espazioa eskainiz. Egia da ez genuela materialik behar izan, baina frontoiaren giltzak larunbatero uzten zigun. Gainera, proiektuaren aurkezpenaren hasieratik nahi genuena egiteko askatasuna eman

ziguten, mugarik jarri gabe. Aipatzekoa da une oro eskertu digutela herrietako haurrentzat egiten ari ginen lana.

Gaur da zerbitzuaren lehen eguna eta ez da umerik etorri, Kultura zinegotziarekin topo egin dugu kalean eta gertatutakoaren berri eman diogu. Zerbitzuarekin jarraitzea animatu gaitu, eta esan digu familiei zerbitzua gogoraraziko ziela eta informazio gehiago emango zuela. (2022/03/26, egunerokoa).

Zerbitzua aurrera eramateko beste laguntzarik ez izan arren, eskertzekoa izan da Kanpezuko Udaletik prozesuan zehar jasotako laguntza eta babesak. Hala ere, gurekiko erakutsi diguten konfiantzak asko erraztu du zerbitzua aurrera eramatea. Bestalde, eskertzekoa da nirekin esku-hartzea egin duen beste irakasle laguntzaileak, Iruri. Prozesuan zehar Iruriren laguntza ezinbestekoa izan da zerbitzua burutu ahal izateko eta berarekin izandako harremana oso lagungarria izan da bidean topatu ditugun oztopoak gainditzeko.

Zerbitzuaren azken saioa da, eta aulkien jolasean, ni jolasa prestatzen eta azaltzen ari nintzen bitartean, bi haur haserretu egin dira. Ni ez naiz konturatu, eta Iruriren laguntza oso garrantzitsua izan da jokoak ez moteltzeko. Izan ere, askotan, lau begik bik baino gehiago ikusten dute, eta nire saioetan Iruriren laguntza izateak segurtasun handiagoa eman dit, eta horrek esku-hartzea behar bezala egitea eragin du. (2022/03/26, egunerokoa).

Bidea beste batekin partekatzea oso lagungarria izan da, eta asko aberastu du prozesua. Askotan, beste baten pertzepzioa eta iritzia izatea behar beharrezkoa da soluzioak bilatzeko blokeatzen garen uneetan. Gainera, Irurik eta biok harreman oso ona sortu dugu, eta horrek are gehiago erraztu du zerbitzuaren prozesua.

Zerbitzuaren hasieratik haurren jarrera eta parte-hartzea oso positiboa izan da. Jardueretan zehar haur guztien parte-hartzea nabaria izan da eta era berean, haur guztiek inplikazioa eta jardueretik interesa erakutsi izan dute.

Gaur konturatu naiz hurrekin egiten ari garen lanaz; izan ere, gaur goizean nire herritik, Zuñigatik, irten baino lehen Kanpezura autoz eramaten ditudan nire herriko bi hurrek ordu laurden lehenago jo didate etxeko txirrina. Izan ere, haien gurasoek larunbat goizetan lan egiten dutenez, haien baimenarekin nik eramaten ditut haurrak Kanpezura. Autoan esan didate oso ondo pasatzen ari direla eta eskerrak eman dizkidate Kanpezura autoz eramateagatik. Gainera, zehaztutako ordua baino lehen nire etxera etorri izana, haurren zerbitzuaren aurrean jarraitzeko gogoaren eta jarrera positiboaren adierazle da. (2022/03/12, egunerokoa).

Haurren saioen hasieratik erakusten zituzten jarrerak eta gogoak zerbitzuarekin jarraitzeko motibazioa eta ilusioa areagotzen ziguten. Izan ere, prestatutako jarduerak haien gustukoak izatea eta haiek guri horren berri ematea giro oso polita sortzea eragin zuen.

Keinu segida sortu jolasean, haurren aurpegieta dibertitzen ari zirela ikusi da eta bukatzean, berriz egitea eskatu didate. (2022/03/12, egunerokoa).

Esan beharra dago haurrek elkar ezagutzea eta taldearen kopurua txikia izatea oso lagungarria izan dela haurrak seguru senti daitezen. Hala ere, haur taldean adin ezberdinak egon arren, hori ez da oztopo izan, erraztasun bat baizik. Izan ere, haien artean elkarlaguntzen ziren, hau da, handiek txikiek laguntzen zuten eta alderantziz.

4.2.3 Faktore oztopatzaileak

Zerbitzua hiru ordukoa izan arren, Irurik ordu eta erdi erabiltzen zuen eta nik beste ordu eta erdia. Hortaz, nire saioaren iraupena ordu eta erdikoa zen. Izan ere, umeei utzi behar genien deskantsu txiki bat hamaiketako jateko, ura edateko eta komunera joateko. Baina momentu batetik bestera gauzak alda zitezkeen kanpoko faktoreengandik.

Gaurko saioa hamabost minutu beranduago hasi behar izan dugu. Izan ere, saioaren hasieran 5 haur baino ez zeuden, eta prestatuta nituen jarduerak hain haur gutxirekin egitea oso zaila zen. Beraz, hamabost minutu horietan haur kopuruari egokitutako beste jolas batzuk proposatzea erabaki dut. (2022/03/19, egunerokoa).

Saioak laburragoak izan arren, ez dut uste zerbitzuaren helburua bete ez denik. Askotan, espero ez genituen gertakariak prestatutakoa egokitu behar izaten behartzen gintuzte, baina hortik ere ikasten dugu, eta bizitzan beti gertatuko zaigun errealitatea da. Horren isla zerbitzua luzatu behar izatea zen.

Gaurko saiora inor bertaratu ez denik, programatutako laugarren saioa martxoaren 26an egitea erabaki dugu. Hau da, zerbitzua martxoaren 19an bukatzeko planifikatuta zegoen, baina gaur gertatutakoarekin zerbitzua luzatzera behartu gaituzte. (2022/02/26, egunerokoa).

Beraz, esan genezake denboraren kudeaketa ez dela gure esku egon den faktore bat, eta saiotik saiora egokitu behar izan dugula. Hala ere, nik uste dut denboraren kudeaketa esperientziaren eta denboraren poderioz lortzen joango garen gaitasuna izango dela.

Umeen jarrera izan da zerbitzuan zehar aurkitutako beste faktore oztopatzaileetako bat. Haurren jarreraren arabera, saioek bide bat edo bestea hartu dute eta saioaren dinamikan eragina izan dute. Oro har, umeen jarrera faktore lagungarria izan bada ere, zenbait kasutan jarrera hori jarduerak gauzatzeko oztopo izan da. Batez ere, aztoratzen zirenean.

Gaurko saioan, gidatzeko prest jolasa moztu behar izan dut. Izan ere, proposatutako jolasean behar beharrezkoa da haurren arteko kooperazioa eta laguntza. Kasu honetan, haurrek apropos gaizki ematen zituzten jokoa behar bezala aurrera eramateko beharrezkoak ziren jarraibideak. Beraz, jolasa etetea erabaki dut, haurrekin gertatutakoaz hitz egiteko eta hurrengo baterako ondo egin ahal izateko. (2022/02/12, egunerokoa).

Zerbitzuaren garapenean, une batzuetan beharrezkoa ikusi dut haurrekin zirkulu batean eseri eta gertatutakoari buruz hausnartzea. Hau da, gelditzea, hitz egitea eta haurrei entzutea. Askotan, hezitzaile gisa, gehiegi zentratzen gara eman beharrekoan, eta ahaztu egiten zaigu umeen nahiak eta kezkek entzutea.

Nahiz eta saio gehienetan haur kopurua 12- 15 bitartekoa izan, larunbatero haur kopuru ezbedinarekin topa egiten genuen. Gainera, haur batzuk ez ziren bertaratzen saio hasten zenean, eta beste haur batzuek alde egin behar zuten saioa amaitu baino lehen. Haurren kopurua aldatzeak eragina zuen saioen dinamizazioan, baina ez nuke oztopotzat hartuko.

Gaurko saioan, hasieran, 10 haur etorri dira, baina zerbitzuak aurrera egin ahala, umeak etortzen joan dira, 20 haur izatera iritsi arte. Hasieran, nahiko zaila izan da saioa bideratzea, baina Irurik eta nik erabaki dugu haurrak bi taldetan banatzea eta bakoitza talde batekin egotea. Horretarako frontoia bitan banatu dugu eta alde batean Iruri egon da 10 haurrekin eta ni beste erdian egon naiz beste 10 haurrekin. (2022/03/05, egunerokoa).

Bestalde, nahiz eta saioetan haur berdinak etorri egunero haur berriekin aurkitzen ginen. Horrek, dena berriro ere azaltzea eskatzen zuen, hau da, sekuentziaren nondik- norakoak, arauak eta bakoitzaren aurkezpena. Beraz, haur talde zehatz bat ez izatea egokitzearen garrantzia erakutsi dit eta espero ez diren alderdiei aurre egiteko prestatzen nau. Hortaz, esku- hartzean zehar ageri diren faktore oztopatzaileek nire etorkizunerako bereganatu behar ditudan erremintak eskuratzen lagundu didate eta modu berean, kanpo faktoreen kudeaketa.

4.2.4 Proposamen didaktikoaren ebaluazio eta balorazioak

Nire balorazio pertsonalean, aurrera eramandako zerbitzua oso aberasgarria izan da eta esan beharra dago asko ikasi dudala. Argi dago saioak planifikatuta ditudan bezala gehienetan ez direla gauzatu, baina parte- hartzaile guztien jarrera oso positiboa izan denez, esan dezaket esku- hartzea aurrera eramatea oso esperientzia polita eta hezigarria izan dela. Hala ere, gorputz- adierazpenean oinarritutako proposamen bat egitea ez da erraza izan, haurrak ez baitaude horrelako jolasetara ohituta. Baina hurrek helduek baino egokitzapen gaitasun handiagoa dutenez, hasieran beste jolas batzuk eskatu zituzten arren, oso epe laburrean egokitzea lortu zuten.

Oro har, proposamenaren bigarren saio honetan nabaritu da haurrak oso gustura egon direla. Aldez aurretik jakinda gorputz-adierazpenean oinarritutako jolasak egingo genituela, hurrek saioaz gehiago gozatzea eragin du. Haien jarreraren nabaritzen zen oso pozik zeudela egiten ari ginen jarduerekin. (2022/03/12, egunerokoa).

Horrez gain, garatutako proposamen didaktikoarekin lortu nahi nituen helburuak bete direla esan dezaket. Izan ere, jolasen bidez, hurrek gorputzaren eta hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko beharrezkoak diren jarrerak garatzea lortu dute. Horretarako, saioak moldatzen joan naiz, ikasleen garapen mailara egokituz. Aipatzekoa da jarduerak modu progresibo batean planteatu direla, jolasen zailtasun maila pixkanaka handituz.

Bigarren jokoan izan ditudan arazoez pazientzia handiagoa izan behar dudala erakutsi didate eta jolasen egokitzapenaren garrantzia. (2022/03/26, egunerokoa).


Bestalde, saioetako arazoak konpontzen saiatu naiz, eta esan dezaket asko ikasi dudala izandako arazoetatik. Azkenik, esan behar dut asko ikasi dudala zerbitzuan izan ditudan akatsetatik, eta zerbitzuaren prozesuan izan ditudan oztopoak beharrezkoak izan direla.

Umeen balorazioak gehien irakatsi dit eta egiten ari nintzen akatsez konturarazi nau. Horretarako, saio guztien azken bost minututan saioaren garapenean izandako bizipenak komentatzen genituen, hala nola, zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar.

Oro har, oso ondo pasatu dutela esan didate, baina ispiluaren jokoan ume batek esan du oso zaila egin zaiola, ez baitzekien zer mugimendu egin. Hala ere, sentimenduen inguruan nabari da zaila egiten zaiela adieraztea. (2022/03/12, egunerokoa).

Egindako autoebaluazioan diana bat erabili dugu; diana lau zatitan banatuta dago eta zati bakoitzak galdera bat du. Honako hauek dira galderak: Dibertitu naiz? Arauak eta kideak errespetatu ditut? Gogotsu parte hartu dut? Zerbait ikasi dut? Ikasle bakoitzak 1 etik 4 rako zenbakietako bat aukeratu egin beharko dute eta hura margotu, 1 zenbakitik (gutxi) eta 4 zenbakiraino (oso ondo).


3. irudia: Autoebaluaziorako diana.



Oharra: Egilek egina.

Haur gehienek ondo pasatu duten galdera “4” zenbakiarekin puntuatu dute, galdetegiaren zenbakirik altuena. Azkenik, ea zerbait ikasi duten galderari dagokionez, aurreko galderekin alderatuz, puntuaketa baxuena duen galdera izan da, “2” edo “3” zenbakiarekin.

4.Irudia: Umeen autoebaluazioaren grafika.



Oharra: Egileak egina.

Orokorrean, proposamen didaktikoen zehar ez nuke esango haurrek zailtasunak izan dituztenik. Izan ere, gorputz- adierazpeneko jarduerak ezberdinak izan arren, azalpenak ondo ulertzen zituzten. Hala ere, ume batek entzumen arazoak zituenez jolas batzuen azalpenak egokitu behar genituen haurrak ulertzeko moduan.

Hirugarren saioa da eta bai edo ez erantzunak jolasean ez naiz konturatu eta entzumen arazoak dituen haurra nahiko galduta egon da jolasaren hasieran. Konturatu naizenean, harengana hurbildu naiz eta berriz jolasaren azalpena eman diot, eta gero, arazorik gabe egin du jolasa. (2022/02/19, egunerokoa).

Azaldutako egoera ikusita, nire errua izan zen lehenago konturatu ez izana, baina hortik aurrera azalpenak altuagoak eta borobil txikiago batean egiten nituen. Gainera, jardueren azalpenetan keinuak egiten hasi nintzen, eta beti adibide bat egiten nuen azalpena argiago geratzeko. Zehaztutako helburuei dagokionez, lortu direlakoan nago eta umeek egindako autoebaluazioari esker esan dezaket giro oso ona sortu dela eta oso gustura egon direla. Nahiz eta arazoak izan, guztion artean aurre egitea lortu da esku- hartzearen helburuak betez.

4.3 Harremanak

4.3.2 Umeen arteko harremanak

Zerbitzura gerturatu diren haurrak adin desberdinetakoak izan arren, gehienek ondo ezagutzen dute elkar, Kanpezuko ikastolara joaten direlako. Horrek eragin oso positiboa izan du gorputz- adierazpeneko jardueren garapenean, jolas askotan beharrezkoa baitzen konfiantza eta segurtasun giroa jarduerak lotsarik gabe egiteko. Beraz, nahiz eta gatazka txikiak gertatu, eman diren harremanak oso onak izan dira.

Jolas baten azalpenean, bi haur haserretu egin dira, eta horietako batek parketik alde egin du korrika. Konturatu garenean, berarengana hurbildu gara eta gertatutakoa azaltzeko eskatu diogu. Beste haur batek ostikada bat eman diola azaldu digu, beraz, beste umearengana joan naiz eta nahi gabe izan dela esan dit. Bi haur elkartu ditugu eta gertatutakoaz hitz egiteko eskatu diegu; azkenean, barkamena eskatu dute elkar eta jolasarekin jarraitu ahal izan dugu. (2022/03/05, egunerokoa).

Orokorrean, harreman oso estuak eman dira, eta nahiz eta bizikidetza gatazkak egon, oso giro polita sortu da haurren artean. Izan ere, beharrezkoa da bizikidetza arauak betetzea, esku- hartzearen garapena osoa izan dadin.

4.3.3 Hezitzaile- ume harremanak

Hezitzaile- ume harremanari dagokionez, oso giro polita sortu da, eta hurrek Iruri eta biok jada ezagutzeak eragin handia izan du. Gainera, hurrekin jolas askotan parte hartzen genuen eta horrek harreman polita sortu du gure artean.

4. irudia: Ni hurrekin frontoian eta parkean jolasten



Oharra: Egileak egina.

Jolas batzuetan, hurrekin aritu izan naiz eta horrek haiei ere lotsak alde batera uzten lagundu die. Hala ere, jolasen azalpenetan nik adibideak jartzea oso lagungarria izan da konfiantzazko giroa sortzeko. Horrez gain, haien laguntza behar izatekotan hor nengoela erakusten saiatu naiz gertutasunaren eta maitasunaren bitartez eta horrek harreman estuagoa sortzen lagundu du.

4.4 Sentipenak, kezka eta zalantzak

Lan honen aurrean kezka eta zalantza ugari izan ditut, aurretik inoiz egin ez dudan esperientzia izan baita. Era berean, esku- hartzea hasi aurretik galdera asko etortzen zitzaizkidan burura.

Gaur esku- hartzearen lehenengo eguna da eta oso urduri esnatu naiz zelan aterako zen pentsatzen. Kezka asko izan ditut, baina gehien kezkatzen ninduen galdera honako hau zen: Haurrak gerturatuko dira? Haurren parte- hartzea

aldez aurretik ez jakiteak ezinegona eragin dit. Horrekin batera, beste zalantza batzuk ere izan ditut: Nolakoa izango da taldea? Onartuko naute? Dena ondo aterako da? Ulertuko naute?. (2022/02/26, egunerokoa).

Hezitzaile gisa askotan adierazitako kezken aurrean, ez dakigu nola jokatu, baina irakasle gisa ditugun dilemei aurre egitea gure eguneroko erronka da. Hala ere, esan behar dut, askotan oso zorrotzak gara geure buruarekin, hau da, autoeskakizunaren kontzeptua nahiko barneratuta daukagu, eta lan baten aurrean itxaropen oso handiak ditugunean eta horiek betetzen ez direnean, frustrazioa azaleratzen da. Esan behar dut proposamena aurrera atera ondoren lasaiago egon naizela eta asko gozatu eta disfrutatu dudana esperientzia izan dela. Hortaz, esan dezaket arazorik gabe berriz errepikatuko nukeen esperientzia izan dela. Izan ere, nire ustez, beharrezkoa da landa eremuetako bizimodua bultzatzea, eta, horretarako, ahalik eta erraztasun gehien eskaini behar zaizkio jendeari, hiri handiagoetara joan beharrik izan ez dezaten. Beraz, oso pozik eta harro nago egindako lanarekin.

Azken eguna izanda, azken balorazioa egitea komenigarriena iruditzen zait. Prozesu luzea izan arren, azken eguna iritsi da eta bai arlo profesionalerako zein pertsonalerako, esperientzia oso aberasgarria eta positiboa delakoan nago. Aurrera eramandako zerbitzua nire kezketatik eta tripetatik abiatu ahal izatea prozesua gehio gozatu izana eragin dit. Izan ere, ni txikitatik herri txiki batean egon naiz eta aurrera eramandako esku- hartzeari esker identifikatutako hutsuneari erantzun utopiko bat ematen saiatzea asko pozten nau. Era berean, herrietan komunitatearen inplikazioa eta parte- hartzea oso positiboa dela ikusi dut eta horrek, herri txikien biziraupena bermatzeko beharrezkoa ikusten dut. Herri txikiek aurrera jarraitzea nahi badugu ume txikietan abiapuntua jartzea ezinbestekoa da. (2022/02/26, egunerokoa).

5. ONDORIOAK

Lanaren azken atalera helduta, garrantzitsua ikusten dut egindako lanaz hausnartzea, akatsetatik eta bidean bizi izandako esperientzietatik ikasteko. Hasieran bide luzea eta zaila izan arren, oso pozik nago prozesu osoan egindako lanarekin eta lortu ditudan emaitzekin. Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodoaren bidez lan egiteko aukera izatea oso esperientzia polita eta hezitzailea izan da. Izan ere, garatutako proiektuaren bidez asetu nahi izan dudana beharra nire pertsonarekin oso lotuta dagoen egoera da, eta nire herriaren inguruko haurrekin lan egiteko aukera izatea beti gogoan eramango dudana esperientzia izan da. Beraz, beharrezkotzat jotzen dut

egindako praktika pedagogikoari buruz hausnartzea, hura hobetzeko eta indartzeko. Era berean, gogoetak irakasle ikertzailea eraikitzen laguntzen du.

Eskainitako ikaskuntza- zerbitzuaren bitartez parte-hartzaileak (nik) ingurunearen benetako premien gainean lan egiten dute. Izan ere, bolondres moduan eskainitako zerbitzuak herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko zailtasunak dituzten umeei zuzendua egon da (Programa Arce, 2014). Hala nola, garatutako zerbitzuaren helburu nagusia ingurune benetako beharrak hobetzeko erantzuna ematea izan da (Rubio, 2008). Era berean, Tapiak (2016) ikaskuntza zerbitzua hartzaile diren biztanleekin eraginkortasunez lankidetzan aritzera bideratuta dago eta Kanpezun aurrera eramandako zerbitzua ikasleen parte-hartze aktiboa eskatu du, hauen autonomia eta askatasuna bultzatuz.

Aurrera eramandako zerbitzua niretzako esperientzia oso aberasgarria eta hezitzailea izan da. Azken finean, Puig, Battle, Bosch eta Palos-en (2007) hitzetan, ikaskuntza- zerbitzuak parte hartzaileen aspektu desberdinetan onurak ekartzen ditu: akademikoki, sozialki, emozionalki eta pertsonalki. Eta zerbitzuaren bitartez nire kontzientzia eta erantzukizun soziala bultzatzea lortu dut, nire etorkizuneko irakasle lanbiderako beharrezkoak izango ditudan erramintak eskuratuz. Modu berean, ikaskuntza zerbitzuak gizartearen hobekuntzan eragiten du, gizarte arazoak ezagutzera eramanez eta parte- hartzaileen beharrak asetuz (Rubio, 2008).

Behin, ikaskuntza zerbitzuaren inguruko gako batzuk aipatuta, hurrek gorputz- adierazpenaren alderdi desberdinetan erraztasunak izan dituztela ikusi dut eta Ramos, Cuellar eta Jiménez-ekin (2012) bat eginez, komunikazioaren eta sormenaren edukiak oinarritzen diren dimentsioek garatuz. Era berean, gorputz- adierazpenean oinarritutako jolasak harremanak, elkarrekintza pertsonala, lan kooperatiboa eta hizkuntza propioen sorkuntza sustatzen da ikasleen arteko harremanak hobetuz (Learreta et al., 2006). Gainera, harreman onak, besteekiko errespetua eta bestea ulertzeko eta ulertua izateko beharra sustatzen lagundu du; talde kohesioa eta segurtasun giroa sortuz. Amaitzeko, aipatu behar da jarduera fisikoa egitea haurren motibazioa eta parte- hartzea bultzatzen lagundu du; ikasleen arteko harremanak hobetzen dira, ikasten duten bitartean. (Aramburuzabala et al., 2019).

Helburuen lorpenari erreferentzia zuzen eginez, lan honen xede nagusia, bolondres moduan eskainitako zerbitzuak eskolaz kanpoko gorputz- adierazpeneko programazio bat garatzea izan da, herri txikietan eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko zailtasunak dituzten umeei zuzendua. Helburu horri dagokionez, lorpenak egin direlakoan nago. Zerbitzuaren lehenengo egunean arazoak izan arren, egunetik egunera haurren parte- hartzea oso positiboa izan da eta planifikatutako esku-

hartzea modu egokian aurrera eraman da. Gainera, zerbitzuaren hasieratik familien onarpena, babesa eta konpromisoa jaso izan dugu, hurrekin egiten genuen lana eskertuz.

Zehaztutako beste helburuetako bat gorputz- adierazpenak eskaintzen dituen aukerak aztertzea haurren inklusio bermatzeko izan da. Horretarako, programatutako lau saioen bidez, haurrak jolasen bitartez gorputzaren eta hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko beharrezkoak diren jarrerak garatzea izan dut helburu. Esan beharra dago, zaila izan dela haurren garapena ondo ikustea, izan ere, gorputz- adierazpenak epe luzerako emaitzak ditu eta esku- hartzea hilabete batean aurrera eraman da. Hala ere, zerbitzuaren hasieran hurrek emozioak, egoerak interpretatzeko eta antzezpenak egiteko zailtasunak izan arren, esan dezaket hurrek pixkanaka helburu hau lortzen joan direla egindako jardueren bidez. Gorputz- adierazpenean oso zaila da ebaluazioa; horregatik, jarreraren ebaluazioak garrantzia izango du. Hala ere, saio bakoitzak helburu zehatz batzuk izango ditu eta, horiek ebaluatzeko, zehaztutako hainbat irizpide hartu beharko dira kontuan. Laburbilduz, haurrak zerbitzuan izan duen jarrera eta inplikazioa eskertzekoa izan da, eta uste dut denen artean saiatu direla nik planteatutako helburuak lortzen.

Azkeneko helburuei dagokionez, horietako bat zerbitzu bat martxan jartzearen oztopoak eta mugez jabetzea izan da, nire etorkizuneko irakasle lanbiderako beharrezkoak izango ditudan erramintak eskuratzeko. Argi dago ez dela prozesu erraza izan eta bidean oztopoak aurkitu ditudala, baina egindako lan guztia nire etorkizunerako oso erabilgarria izango delakoan nago. Zerbitzuaren hasieran motibazioak behera egin bazuen ere, pixkanaka oztopoak gainditu izanak lanarekin aurrera egiteko behar nuen konfiantza eta segurtasuna eman zizkidan. Horrekin batera, beste helburuetako bat, ikaskuntza- zerbitzuaren bidezko metodologiak dituen onurak eta mugak aztertzea izan da. Metodo honekin lan egiteak aukera paregabea eman dit beste errealitate batzuk ezagutzeko eta gabezia sozialak identifikatzeko.

Azkenik, lan honen bidez, azken lau urteetan zehar irakasle izateko eskuratutako gaitasunak azken lan batean islatzea izan du helburu, nire garapenaren prozesua aztertzeko eta berri emateko. Esan behar dut oso pozik nagoela egindako lanarekin, eta nire burua Lehen Hezkuntzako Gradua hasi nuenean eta gaur egun konparatzen badut, izugarriko garapena izan dudala antzematen dut, bai arlo profesionalean, bai pertsonalean. Lau urteetan zehar nire formakuntzarako jaso dudana guztia lan honetan praktikan jartzeko aukera izan dut. Egia da esperientzia honen aurrean kezka eta zalantza asko izan ditudala eta, horrekin batera, erabakiak hartzeko garaian dilemak. Baina argi dago bidea oso luzea dela eta ikasten jarraitzeko gogoz nagoela.

Behin zerbitzua amaitu dudala eta lortutako emaitzak aztertu ditudala, esan behar dut lan honek mugak eta hobetzeko alderdiak izan dituela. Nire ustez, zerbitzuaren lehenengo egunean inor ez bertaratzea izan da lan honek izan duen mugarik handiena. Hurrengo saioetan haurren parte-hartzea oso positiboa izan zen arren, lehenengo egunean gertatutakoa zerbitzuarekin jarraitzeko motibazioa gutxitu egin zen eta horrek eragin zuzena izan zuen zerbitzuari buruz nituen itxaropenetan. Hala ere, ez nuke esango prozesuan zehar muga asko izan ditudanik.

Bestalde, egindako lanari buruz hausnartu ondoren, programatutako sekuentzia didaktikoan emozioen inguruan jardura batzuk egiten dira saio batean, gorputz-adierazpeneko jardueren bidez. Saio horretan konturatu nintzen haurrek zailtasun handiak dituztela emozioak adierazteko orduan, eta, beraz, uste dut oso egokia izango litzatekeela hurrengo baterako emozioei buruzko lanketa egitea gorputz- adierazpenak eskaintzen dituen baliabideen bidez. Izan ere, behar beharrezkoa ikusten dut hurrei beren emozioak kudeatzen ikasteko behar dituzten baliabideak eskaintzea, eta gorputz-adierazpena oso aukera erabilgarria eta hezitzailea izan daiteke.

Bukatzeko, nahiz eta gutxi gorabehera buruan nituen helburuak bete diren, lan honetan zehar hobetzeko alderdi batzuk identifikatu ditut. Hobetzeko aspektuak daudela jakinda, beste baterako beste modu batean egiteko aukera dut. Denboraren kudeaketari dagokionez, esan behar dut sekuentzia didaktikoan definitutako jardura bakoitzaren iraupena askotan moldatu behar izan dudala eta, ondorioz, jolas batzuk egin gabe geratu direla. Hala ere, joko batzuk egiteko denbora ez izateak ez du zertan negatiboa izan, nire ustez gehiago egiteagatik ez baitu esan nahi hobeto dagoenik. Haurrekin, denbora osoan egokitzen egon behar gara, une oro ezustekoak daudelako eta hurrei egokitzea oso garrantzitsua eta beharrezkoa da. Beraz, hurrengo sekuentzia didaktikoan egokiagoa litzateke jardueren iraupenean malgutasun handiagoa izatea.

Lanak hutsuneak eta hobetzeko alderdiak izango dituen arren, esperientzia oso aberasgarria izan da eta lau urte hauei agur esateko ez dut beste modu egokiagorik aurkitzen.

6. ERREFERENTZIAK

- Aramburuzabala, P., Santos-Pastor, M. L., Chiva-Bartoll, O., & Ruiz-Montero, P. J. (2019). Perspectivas y retos de la intervención e investigación en aprendizaje-servicio universitario en actividades físico-deportivas para la inclusión social. *Publicaciones*, 49(4), 19–27. doi:10.30827/publicaciones.v49i4.11726

- Aramburuzabala, P., Cerrillo, R., & Tello, I. (2015). Aprendizaje-servicio: una propuesta metodológica para la introducción de la sostenibilidad curricular en la universidad. *Revista de curriculum y formación del profesorado*, 19(1), 79-95.
- Arguedas, C. (2004). La expresión corporal y la transversalidad como un eje metodológico construido a partir de la expresión artística. *Revista Educación*, 28(1), 123-131.
- Cansino, J.A. (2016). Un nuevo paradigma para un futuro más saludable y con valores.- Deporte Inclusivo, Actividad Física Inclusiva y Educación Física Inclusiva. *Revista Nacional e Internacional de Educación Inclusiva*, 9(2), 69-86.
- Chiva, O., Pallarés, M., & Gil, J. (2018). Aprendizaje-servicio y mejora de la Personalidad Eficaz en futuros docentes de Educación Física. *Revista Complutense de Educación*, 29(1), 181-197. <https://doi.org/10.5209/RCED.52164>
- Coterón, J. (2007). *Los contenidos de Educación Física en los manuales escolares: La Expresión Corporal en la primera etapa de Educación General Básica (1970- 1980)*. (Tesis), Universidad Politécnica de Madrid, Madrid.
- Galeano, M. E. (2004). *Diseño de proyectos en la investigación cualitativa*. Universidad EAFIT
- Learreta, B., Ruano, K., & Sierra, M. A. (2006). *Didáctica de la Expresión Corporal: talleres monográficos*. INDE.
- Leiss, L., Giorgetti, D., Hillar, G., Montes, R., & Walther, L. (2015). *10 Años de aprendizaje y servicio solidario en Argentina. Programa Nacional de Educación Solidaria*. Ministerio de Educación, Ciencia y Tecnología de la Nación. <https://www.zerbikas.es/wp-content/uploads/2015/09/0403TAP10a.pdf>
- Luna, E. (2010). *Del Centro Educativo a la Comunidad: un programa de aprendizaje-servicio para el desarrollo de ciudadanía activa*. [tesis doctoral]. Facultad de Pedagogía. Universitat de Barcelona.
- Méndez-Giménez, A., & Martínez, D. (2017). Percepciones del estudiante de Primaria sobre el uso del modelo de educación deportiva para la enseñanza del mimo. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 418, 21-34. Mendía, R., & Moreno, V. (2010). *Aprendizaje y servicio solidario: una estrategia para la inclusión social*. Guías

- Zerbikas, 3.Zerbikas fundazioa, 0.Zerbikas Fundazioa. <https://www.zerbikas.es/wp-content/uploads/2015/07/3.pdf>
- Nicolás, G.V., Ureña, N., Gómez, M., & Carrillo, J. (2010). La danza en el ámbito de educativo *RETOS. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 17, 42-45. <https://www.redalyc.org/pdf/3457/345732283009.pdf>
- Programa Arce (2014). *Guía de asesoramiento de proyectos de aprendizaje- servicio*. Ministerio de Educación. <https://www.zerbikas.es/wp-content/uploads/2017/01/Guia-Asesoramiento-ApScas.pdf>
- Puig, J. M., Batlle, R., Bosch, C., & Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Octaedro.
- Puig, J.M., Martín, X., & Battle, R. (2008). *Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat. Zerbikas gidak*, 1. Zerbikas Fundazioa. https://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/1_eu.pdf
- Ramos, J., Cuéllar, M. J., & Jiménez, F. (2012). Nuevos retos en el desarrollo curricular de la expresión corporal. *EmásF, Revista Digital de Educación Física*, 14, 1-8.
- Ríos, M. (2017). El deporte como recurso educativo en la inclusión social. *Educació Socia, Revista d'Intervenció Socioeducativa*, 65, 44-56.
- Rubio, L. (2008). *Aprendizaje y servicio solidario. Guía Zerbikas*, 0. Zerbikas Fundazioa. <https://www.zerbikas.es/wp-content/uploads/2015/07/0.pdf>
- Ruiz, P. J. Chiva, O., & Rivera, E. (2016). Aprendizaje-servicio en los Grados de Educación física: Ejercicio físico con personas mayores. *Revista Ágora para la EF y el deporte* 18(3), 244- 258.
- Soler, S., Flores, G., & Prat, M. (2012). La educación física y el deporte como herramientas de inclusión de la población inmigrante en Cataluña: el papel de la escuela y la administración local. *Pensar a Práctica*, 15(1), 1-19.
- Stokoe, P. (1974). *La Expresión Corporal y el adolescente*. Barry.

Tapia, M. N. (2016). *Inserción curricular del aprendizaje-servicio en la Educación Superior*. CLAYSS.

Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario*. Ciudad Nueva argitaletxea.

UNESCO. (2015). Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda garapen jasangarriarako. <https://sustainabledevelopment.un.org/post2015/transformingourworld>.

Vázquez- Gómez, B. (1989). *La educación física en la educación básica*. Gymnos.

Viciano, V., & Arteaga, M. (2004) *Las Actividades coreográficas en la escuela. Danzas, Bailes, Funky, Gimnasia-Jazz*. Inde.

Vizcarra, M. T. (koord.) (2010). *Gorputz adierazpena Lehen Hezkuntzan*. EHUko Ikasmaterialen Sare Argitalpenak.

ERANSKINAK

GRADU AMAIERAKO LANA



EGILEA: Santarén Barrios, Elena

ZUZENDARIA: López Vélez, Ana Luisa


2021 - 2022

7. ERANSKINAK

1.Eranskina: Frontoiaren eta parkearen argazkiak



2.Eranskina: Ikasleen autoebaluaziorako diana



3.Eranskina: Ikasleen ebaluazio taula

EBALUAZIO- IRIZPIDEAK	1	2	3	4	5
1. Lotsa gainditu du.					
2. Gogoz parte hartu du.					
3. Irakaslearen azalpenak gogotsu entzuten ditu.					
4. Nor bere mugimenduen inguruan arakutzen eta aukerak aztertzen ibili da.					
5. Mugimendua erabili du besteekin harremanetan jartzeko.					
6. Keinuak eta mugimendu ugari erabiltzen ditu.					
7. Mugimendu ulergarriak erabiltzen ditu, besteekin egoki komunikatuz.					


8. Gorputza erabiltzen du ideiak transmititzeko.					
9. Taldekideekin lankidetzeta eta laguntza bermatzen du.					
10. Ekintzetan ezartzen diren arauak errespetatu ditu.					
11. Antzezlanak zuzentasunez antolatu eta garatu ditu					
12. Mugimendu berriak sortzen saiatzen da.					
13. Gai da sentrazioak, emozioak, bizipenak, egoera eta ideia berriak eraikitzeko.					
14. Musika entzuten du eta horren erritmoarekin mugitzen da.					
15. Erritmo ezberdinak sortzen ditu.					
Oharrak:					


4. Eranskina: Sekuentzia- didaktikoa

2.SAIOA			
SAIOAREN IZENA	Ahotsa erabili gabe komunikatu gaitzke?	EGUNA	2022/03/12
LEKUA	Parkean	DENBORA	Ordu bat eta 30 minutu
MATERIALA	- Zapiak - Txartelak - Bankuak - Uztaia	MAILA	6- 12 urte
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Gorputz-hizkuntzaren bidez pertsonen arteko komunikazioa erabiltzeko. - Gorputz- adierazpenaren bidez egoerak antzezteko. - Hitzeko komunikazioa ez den beste moduak ezagutzeko eta erabiltzeko. 		


BEROTZE FASEA				
1. J A R	JARDUERA	Saioaren nondik- norakoak azaldu	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa


D U E R A	AZALPENA	MARRAZKIA
	Bigarren saioaren nondik norakoak azalduko ditut eta aurreko saioan egindakoaz hitz egingo dugu.	


BEROTZE FASEA				
2. J A R D U E R A	JARDUERA	Elkar ezagutzen gara!	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA	MARRAZKIA		
	Espazioan zehar mugituko dira eta keinu, begirada, ukimen, distantzia, orientazio... desberdinak erabiliko dituzte agurrak egiteko.			
	<ol style="list-style-type: none"> 1. Aldaera: Binaka, espazioan zehar mugituko dira begien kontaktua galdu gabe eta distantziak aldatuz. 2. Aldaera: Binaka alboan dutenarekin agurra asmatu. 3. Aldaera: Binaka, batak besteari barre eginaraztea; besteak barrerik egin gabe iraun nahiko du. 			


BEROTZE FASEA				
3. J A R D U E R A	JARDUERA	Hitz egin gabe ordenatu	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Bankuak	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA	MARRAZKIA		
	Haur guztiak modu desberdinetan kokatu eta ordenatu beharko dira:			
	<ul style="list-style-type: none"> - Adinaren arabera. - Oinaren tamainaren arabera. - Izenaren arabera. Aldaera: Zailtasun maila handitzeko haurrak banku baten gainean kokatu beharko dira lurra ukitu gabe.			


--	--	--


ATAL NAGUSIA					
4. J A R D U E R A	JARDUERA	Gidatzeko prest!	DENBORA	10 minutu	
	MATERIALA	Zapiak	TALDEKATZEA	Talde txikietan	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Talde bakoitzak boluntario bat aukeratuko du. Boluntario hori ilara baten lehenengoa izango da eta gainontzeko guztiak atzetik jarriko dira. Ilarako azkenak bakarrik izango ditu begiak irekita, gainontzekoek itxita (zapi batekin estaliak).</p> <p>Jolas honetan ezin izango da hitz egin, eta azkenekoaren aginteak beteko dira. Azkenari bakarrik esango zaio nora iritsi behar diren.</p> <p>Azkenak aurrekoaren sorbaldan kolpeak emanaz bidea gidatuko du eta aurrekoek mezua lehenengoari helarazi beharko diote, mugimendua kopiatuz.</p> <p>Keinuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurrera: bi eskuekin sorbalda jo. - Ezkerrera: ezkerreko sorbaldan jo. - Eskumara: eskumako sorbaldan jo. - Gelditu: bi aldiz bizkarrean. 				


ATAL NAGUSIA					
5. J A R D U E R A	JARDUERA	Eguneroko egunerokoa	DENBORA	10 minutu	
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Kutxa baten barruan eguneroko egoerak egongo dira. Banan-banan txartelak hartzen joango dira, eta egoeraren antzezpena egin beharko dute besteek zer den asma dezaten. Adibideak: ohetik altxatu, gosaldtu, hortzak garbitu, arropa jantzi, txakurra paseatu, eskolara joateko autobusa hartu, eskolako patioan jolastu, dutxa hartu...</p>				


ATAL NAGUSIA				
6. J A R D U E R A	JARDUERA	Cara bin bon ban!	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde txikietan
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	<p>Pertsona bat hormaren aurrean dago, buelta emanda; hormarantz begira dagoenean, besteak nahi duten guztia mugitu daitezke hormarantz gerturatuz; hormarantz iristen den lehenengo pertsonak irabaziko du.</p> <p>Horman dagoenak buelta hartzen bada eta norbait mugitzen ari bada, ibilbidea berriro hasi beharko du. Kasu honetan, hormaren kontra dagoenak buelta eman dezake nahi duenean abisatu gabe.</p>			

ATAL NAGUSIA				
7. J A R D U E R A	JARDUERA	Ispilua	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Binaka
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	<p>Haurrak bata bestearen aurrean jarriko dira, eta bietako batek nahi dituen mugimendu eta keinuak egingo ditu, eta besteak, ispiluaren parean egongo bailitzan, bikotea imitatuko du. Gidariak esango du rola noiz aldatuko dituzten. Tutifruti esaterakoan bikotez aldatu beharko dira.</p>			


ATAL NAGUSIA				
8. J A R D U E R A	JARDUERA	Keinu segida sortu	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	<p>Borobilean bakoitzak keinu bat egingo du; aldamenekoak keinu hori errepikatu eta beste bat gehituko du, partaide guztiek keinu segida bat sortu arte.</p>			

LASAITZE FASEA					
9. J A R D U E R A	JARDUERA	Uztaia laberintoan	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	Uztaia	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Haurrak borobilean jartzen dira eta eskutik helduta uztaia ikasle guztietatik pasatzea lortu behar da, eskuekin ukitu gabe eta askatu gabe.				


LASAITZE FASEA					
10. J A R D U E R A	JARDUERA	Erlaxatzeko unea iritsi da!	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	Pelota txikiak	TALDEKATZEA	Binaka	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Binaka jarrita, bata besteari masaje bat emango diote pilota txiki batekin. Gero, rola aldatuko dute.				

LASAITZE FASEA					
11. J A R D U E R A	JARDUERA	Hausnartzeko unea	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA		TALDEKATZEA	Taldeka	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Haurrak borobilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Hausnarketa bideratzeko, galderak egin daitezke: "Zer moduz pasatu duzue? Nola konpondu zarete jokoetan eskatzen zen betetzeko? Zer egin duzue? Norbaitek minik hartu al du? Zergatik? Zailak ala errazak iruditu zaizkizue proposatutako jarduerak?". Ondoren, autoebaluazioa egingo dute.				

3.SAIOA			
SAIOAREN IZENA	Antzerkigileak gara!	EGUNA	2022/03/19
LEKUA	Parkean	DENBORA	Ordu bat eta 30 minutu
MATERIALA	<ul style="list-style-type: none"> - Bozgorailua - Txartelak - Poltsak - Zapiak 	MAILA	6- 12 urte
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Lotsa gairiditzeko eta besteekiko harremana hobetzeko. - Adierazpen propioa gauzatzea, norberaren adierazpen-baliabideak hobeto ezagutzeko . - Dramatizazio-ekintza bat gauzatzea, mezu eta eremu batean kokatuta, erantzukizun pertsonalizatua adierazteko. - Emoziok, sentimenduak eta ideiak adierazteko eta transmititzeko gorputz-mugimendu eta adierazpenen bitartez. 		

BEROTZE FASEA					
1. J A R D U E R A	JARDUERA	Saioaren nondik- norakoak azaldu	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Hirugarren saioaren nondik norakoak azalduko ditut eta aurreko saioan egindakoaz hitz egingo dugu.				


BEROTZE FASEA					
2. J A R D U E R A	JARDUERA	Zer transmititzen dit?	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	<ul style="list-style-type: none"> - Bozgorailua - Txartelak 	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Espazioan zehar sentimenduak adierazten dituzten argazkiak itsatsiko dira, musika jarriko da eta abesti bakoitzak transmititzen dien arabera, txoko batean edo bestean jarriko dira. Ondoren, nahi duena zergatia azaltzeko aukera izango du.				





BEROTZE FASEA					
3. J A R D U E R A	JARDUERA	Nor da nor?	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Haur bakoitzari sentimendu baten argazkia emango zaio, eta, beraz, espazioan zehar mugitu beharko dira sentimendu hori irudikatuz eta sentimendu bera duen bikotekidea bilatuz.</p>				

BEROTZE FASEA					
4. J A R D U E R A	JARDUERA	Bikotearen bila	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Haur bakoitza animalia bat izango da, eta animalia horren soinua imitatu beharko du. Haur horrek bikotekidea aurkitu beharko du.</p> <p>Animaliak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elefantea - Lehoia - Txoria - Igela 				

ATAL NAGUSIA				
5. J A R	JARDUERA	Ezetz asmatu zer naizen?	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	

D U E R A	<p>Ume bakoitzari heroi baten egoera proposatuko zaio; hori interpretatu eta besteek asmatu egin beharko dute zein heroia den eta zer egiten ari den.</p> <p>Proposamenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Superman taberna batean dantzatzen. - Superwoman San Mamesean gola sartzen. - Spiderman supermerkatuan erosketak egiten. - Batman hondartzan eguzkia hartzen. - Hulk txakurra paseatzen. 	
-----------------------	---	---

ATAL NAGUSIA				
6. J A R D U E R A	JARDUERA	Amaiera asmatu	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Ipuinen hasierak	TALDEKATZEA	Talde txikietan
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	<p>Taldeka ondo dakiten ipuin baten hasiera irakurriko zaie. Talde bakoitzak ipuin horri bukaera berri bat asmatuko diote, gero besteen aurrean antzetzeko.</p>			

ATAL NAGUSIA				
7. J A R D U E R A	JARDUERA	Bai edo ez erantzunak	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Txartelak	TALDEKATZEA	Talde osoan
	AZALPENA		MARRAZKIA	
	<p>Haur bakoitzari pertsonaia ezaguna baten argazkia emango zaio. Argazkia ezin izango du begiratu eta horretarako, kopetan itsatsita jarri beharko du. Bakoitzak asma dezan zein pertsonaia egokitu zaion, besteek galderak egin behar dizkie, baina horiek bai edo ez erantzun dezakete.</p>			

ATAL NAGUSIA


8. J A R D U E R A	JARDUERA	Sormen handiko haurrak gara!	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Poltsak hitzekin	TALDEKATZEA	Talde txikietan
	AZALPENA		MARRAZKIA	
<p>3 poltsatan, mota ezberdinetako hitzak daude idatzita:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. poltsan: pelikulak - 2. poltsan: munduko leku ezberdinak - 3. poltsan: aro bat <p>Talde bakoitzak poltsa bakoitzetik papera atera eta hiru ezaugarriekin besteen aurrean istorio labur bat antzeztuko dute.</p>				

LASAITZE FASEA				
9. J A R D U E R A	JARDUERA	Nirekin dantzatu nahi?	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	Zapiak	TALDEKATZEA	Talde osoa eta binaka
	AZALPENA		MARRAZKIA	
<p>Bi rol egongo dira. Batzuk marra baten gainean ilara bat osatuz kokatuko dira, eta begiak zapi batekin estalita izango dituzte. Beste taldeko bakoitzari zenbaki bat jarriko zaio eta, bata baldin bada, marraren gainean kokatuta dagoen lehenengoarekin dantzatu beharko du, bera nor den asmatzen duen arte. Guztiek egin ondoren, lekuz aldatu egingo dira.</p>				



LASAITZE FASEA				
10. J A R D U E R A	JARDUERA	Zer moduz gaurko saioa?	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	Autoebaluazio fitxa	TALDEKATZEA	Talde osoan eta banaka
	AZALPENA		MARRAZKIA	
<p>Haurrak borobilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar). Autoebaluazioa.</p>				


--	--	--

4.SAIOA			
SAIOAREN IZENA	Dantza dezagun!	EGUNA	2022/03/26
LEKUA	Parkean	DENBORA	Ordu bat eta 30 minutu
MATERIALA	<ul style="list-style-type: none"> - Uztaiak - Bozgorailua - Zapiak 	MAILA	6- 12 urte
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> - Musikaren erritmo ezberdinak bereizi eta gorputzarekin markatu, gorputz-atalen bidez musika eta erritmoak sortzea. - Gorputzaren bidez dantza erritmiko bat sortzea. - Musika bat entzutean interpretazioak sortu eta inprobisatzea. - Gure gorputzak mugitzeko dituen aukerak eta mugak ezagutzea. 		


BEROTZE FASEA					
1. J A R D U E R A	JARDUERA	Saioaren nondik- norakoak azaldu	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	-----	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Lugarren saioaren nondik norakoak azalduko ditut eta aurreko saioan egindakoaz hitz egingo dugu.				


BEROTZE FASEA				
2. J A R R	JARDUERA	Dantzatze prest?	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde osoa
	AZALPENA		MARRAZKIA	


D U E R A	<p>1. Atala: umeak kiroldegitik sakabanatuko dira, nahiko sakabanatuta daudela ikustean, gidariak begiak ixteko eskatuko die ikasleei. Oraingo honetan, gidariak txaloen bitartez erritmo bat jotzen hasiko da eta hurrek erritmo bera jarraitzen saiatu beharko dira. Ondoren, gauza bera egin behar izango dute baina kiroldegitik mugituz eta begiak irekiz.</p> <p>2. Atala: Berriz ere borobil batean jarriko dira ikasleak baina kanpora begira haien artean ez ikusteko. Oraingo honetan, bozgorailuan musika simple ezberdinak jarriko ditu gidariak eta oraingoan haurrak pausu batekin alde batera eta bestera mugituz jarraitu beharko dute abesti bakoitzaren erritmoa.</p>	 
-----------------------	---	---

BEROTZE FASEA				
3. J A R D U E R A	JARDUERA	Zapiarekin dantzatzen	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	- Bozgorailua - Zapiak	TALDEKATZEA	Banaka
	AZALPENA	MARRAZKIA		
	Banaka zapi bat hartuko dute, eta horrekin dantzatuko dira zelai osoan zehar musika ezberdinekin. Gero, gidariak azalduko die eskuarekin ezin dela zapia eraman, eta beste modu batera eramaten saiatuko dira.			

BEROTZE FASEA				
4. J A R R	JARDUERA	Elkarrekin dantzan	DENBORA	5 minutu
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Bikoteka
	AZALPENA	MARRAZKIA		

D U E R A	Bikoteka jarriko dira eta gidariak adierazten duen gorputz-ataletik helduko diote elkarri. Musikarekin dantzatuko dira eta heldulekua aldatuz joango da: eskutik, besotik, oinarekin, ipurdiarekin, bizkarrarekin, aldakarekin...	
-----------------------	---	--

ATAL NAGUSIA					
5. J A R D U E R A	JARDUERA	Aulkien jolasa	DENBORA	10 minutu	
	MATERIALA	- Uztaiak - Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde osoan	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Borobilean uztaiak jarriko dira eta musika entzutean ikasleek dantzatu behar dute uztaien kanpoaldetik. Musika gelditzean, haurrak uztaien barruan jarri behar dira eta uztairik gabe geratzen dena, uztai bat hartuko du eta polikiroldegiaren beste alde batean uztaiarekin esperimintatzeko aukera izango du.</p>				

ATAL NAGUSIA					
6. J A R D U E R A	JARDUERA	Guztien koreografia	DENBORA	10 minutu	
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde txikietan	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	<p>Haurrak borobilean eseriko dira eta haien artean nork hasiko den erabakiko dute. Aukeratu duten umea altxatu eta mugimendu bat egingo du. Hurrengoak aurrekoak egindako mugimendua imitatzeaz gain, beste bat gehituko du. Pixkanaka, bakoitza mugimendu berri bat gehitzen joango da hasierako ikasleari txanda berriz ere iristen zaion arte. Jarduera honen bidez haien mugimenduez jabetzeaz gain, haien memoria gaitasunaz ohartzeko aukera izango dute, horrela haien burua hobeto ezagutuz.</p>				


ATAL NAGUSIA				
7. J A R R	JARDUERA	Taldekatzen	DENBORA	10 minutu
	MATERIALA	- Bozgorailua - Zapia	TALDEKATZEA	Talde txikietan
	AZALPENA		MARRAZKIA	

D U E R A	Banaka jarraituko dute zapiarekin dantzan. Oraingoan, irakasleak adierazten duen kopuruaren arabera taldeak osatuko dituzte: 4, 3, 5, 10, 7... Azken zenbakia 5 izango da eta, horrela, hurrengo jokorako taldeak eginda utziko ditugu.	
-----------------------	---	--

ATAL NAGUSIA					
8. J A R D U E R A	JARDUERA	Erritmoa jarraitu	DENBORA	10 minutu	
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde txikietan	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Taldetan banatuko dira biribilean jarritz. Txaloka, oinekin eta behatzekin, bakoitzak proposamen bat egingo du, eta besteek errepikatu egin beharko dute.				

LASAITZE FASEA					
9. J A R D U E R A	JARDUERA	Tornadoa	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	Bozgorailua	TALDEKATZEA	Talde osoa	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Guztiak eskutik helduta egongo dira marra baten gainean; beraz, erpinetan daudenek esku bat libre izango dute. Horietako bat bere buruari birak ematen hasiko da, guztien artean tornado bat osatzen duten arte. Orduan, eskuak askatu gabe lekualdatzen saiatuko dira.				

LASAITZE FASEA					
10. J A R D U E R A	JARDUERA	Zer moduz gaurko saioa?	DENBORA	5 minutu	
	MATERIALA	Autoebaluzio fitxa	TALDEKATZEA	Talde osoan eta banaka	
	AZALPENA		MARRAZKIA		
	Haurrak borobilean jarriko dira, eta saioaren garapenean izandako bizipenak komentatuko dituzte (zailtasunak, lorpenak, emozioak eta abar).				

Ondoren, autoebaluazioa egingo dute.	
--------------------------------------	---

4. Eranskina: Kanpezuko udaletxeari bidalitako korreoa

Kaixol!

Elena Santaren Zuñigakoa eta Iruri Basterra Kanpezukoa gara, EHU-ko ikasleak. Gure gradu amaierako lana egiteko pentsatu dugu zerbitzu bat eskaintzea Kanpezu eta inguruko haurrentzako. Gure proposamena lau larunbatetan, Otsailak 26 eta Martxoak 5, 12 eta 19-an aurrera eramango genuke goizeko 10:00-etatik 13:00-etara. Hiru ordu hauetan jolas kooperatiboak eta gorputz adierazpena landuko ditugu jolasen bitartez, 6-12 urteko haurrentzako. Zerbitzu hau dohainik egingo dugu eta euskaraz, uste dugu ekintza polita eta hezigarria izan daitekeela herrikoek prestatua herrikoentzako. Proposamen hau egiteko uste dugu beharrezkoa dugula espazio itxi bat eguraldia dela eta, beraz, agian zuek lekuren bat utzi ahal diguzue egun hauetarako. Hau da gure proposamena, ondo iruditzen bazaizue eta baiezkoa ematen badiozue zerbitzu honi guri jakinarazi.

Zuen erantzunaren zain geratzen gara, mila esker !

5. Eranskina: Kartela eta herrietatik hartutako argazkiak



